

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iurreta



Aurkibidea

Udalerria: Iurreta

Sarrera



Iurretako Elizatea Durangaldeko eskualdean dago. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean Ibarri (Muxika); hegoaldean, Durango; sortaldean, Garai eta Abadiño; eta, mendebaldean, Amorebieta-Etxano. Herrigune nagusiaz gain, Arriandi, Goiuria, Orozketa, Oromiño, Bakixa eta Santa Apolonia auzoak aipatzekoak dira. 1991. urtean Durangogandik banandu zen. Mendebaleko euskararen aldaera bat da herriko eta inguruko jatorrizko euskalkia.

- **Biztanleak:** 4.055
- **Euskaldunak:** %49,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **64**
- Zintak: **65**
- Pasarteak: **325**
- Transkribatutakoak: **24**
- Audioak: **14**
- Bideoak: **294**

Proiektuak

- 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Dialektologia-EHU
- Durango 1936
- Durangoko ahotsak
- Ermuko eta Mallabiko "Drogeteniturrri" aldizkaria
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- IRALE
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Iurreta elizateko euskara eta toponimia
- Zornotzako ahotsak

Hizlariak

Victor Agirrezabal Gallastegi (1921-2012)

Santa Marinako Eubabaso "Askarreneta" baserrian jaio zen 1921.eko martxoaren 30ean, eta Agirregoikoa "Zesteruena" etxean bizi izan zen. Ama Arratia aldetik Bernagoitira zuzendu zen zazpi urterekin; aita, ostera, iurretarra zuen. Hargin lanetan jardun zuen jubilatuta arte. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Jose Agustin Alberdi Astarloa (1922)

Iurretako Ertzilurruti baserrian sortu zen 1922.eko abuztuaren 2an. Ama Mallabiako zuen eta Mañariara ezkondu zen. Lehen ikasketak Iurretako eskolan egin zituen. 1948an ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituen. Iurretan ta Mañarin bizi ondoren Durangora joan zen. elkarrizketa egin zitzaionean bertan bizi zen. Ogibidez, tuerkagintzan luzaro, 41 urtean. Fabrikaren porrotaren ondoren, Kurutziaga Ikastolan zaintzaile jubilatuta arte. 18 urterekin lehen bertsoak kantatu zituen taberna bazterrean. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan lau aldiz parte hartu izan du: 1958-59-60-61ean. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Jose Alberdi Bikandi (1923)

Santa Apoloniako Aldekoa baserrian munduratu zen 1923ko Urriaren 30ean soinu-jole hau. Bere emaztea, Mercedes Agirrezabal iurretarra, laguntzaile izan zuen grabaketan. Durangoko Txibitena auzoan bizi zen grabaketan egin zitzaionean. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Juan Alberdi Gojenola (1909)

Iurretako Arripausueta Etxebarria "Ebro" baserrian jaio zen 1909ko otsailaren 2an. Elkarrizketa egin zitzaionean San Migel plazako Bekola Etxebarria etxean bizi zen. Ama eta andrea Gernikaldekoak zituen, lehena foruarra eta bestea Gautegiz-Arteagakoa. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.



Anton Mari Aldekoa-Otalora (1951)



Antonio Aldekoa-Otalora (1912)

Marcos Aldekoa-Otalora Beitia (1916)

lurretakoa lurretaburu baserrian munduratu zen 1916.eko azaroaren 16an. Ama Mañarikoa zuen. Urtez luzez dantzaria izan zen. Andrea Durangokoa zuen eta bertan geratu zen bizitzen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" liburua argitaratu aurretik hil zen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Mercedes Arrizabalaga

Sabina Arroitauregi Gandiaga (1916)

Orobio "Oromiño" auzoko Larreakoa baserrian jaio zen 1916ko urtarrilaren 8an. Gaztetatik baserriko lanetan aritutakoa. Gerra aurretik Bilbon eta Santanderren neskame lanetan ibili zen. Gorozikako (Muxika) senarra izan zuen. Grabaketa egin zitzaionean lurretako Montoian bizi zen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Matilde Arruabarrena Astorkia (1923-2012)

lurretako plazan egoniko etxe batean munduratu zen 1918ko maiatzaren 4an. Abadiñoako gizona izan zuen okin honek. Grabazioa egin zitzaionean Goikola etxean bizi zen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Felix Arruti Bikandi (1932)



1932an Amatzako errotan jaioa. [Durango 1936 Elkartekoek](#) egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

Juan Aurtenetxe Alberdi (1924)

Santa Marinako Gaztañatza Goieazkoa "Goisko" baserriak sortu zen 1924an. Ama bertakoa zuen eta aita zornotzarra. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Cosme Barrutia Iturriagagoitia (1929-2005)

Santa Marinako Ibaibide "Azeriyena" baserrian jaio zen 1929.eko irailaren 27an, auzo bereko Etxebarrieta Etxebarria etxean bizi izanez. Ama Abadiñokoa zuen. Bizikleta-zalea eta masajista zen. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Maria Belar Etxaniz (1918)

Orozketako Olabarrietagana "Iperra(g)erre" baserrian sortu zen 1918ko maiatzaren 14an. 7 urterekin hasi zen eskolan eta 8-9 urte zituenerako Durangora eramaten zuen etxeko esnea astoz. Aita umeak zirela hil zitzaien eta gazterik hasi behar izan zuen neskame bezala beharrean, 11 urte gaz Portugaletera joan zen esne-banatzaille. Durangon eta Altzolako hoteleko (Elgoibar) sukaldean era ibili zen lanean. Gerrak irten zuenean, Bartzelonan egon zen neskame lanetan joanda. Ezkondu ostean, Orozketako baserrira jo zuen, urte batzuetan neskame ibili eta gero. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen. Segunda Jaiok ere elkarrizketa berean hartzen du parte.

Teodoro Bereziartua Garmendia (1922)

Orozketako Otalora baserrian sortu zen 1922.eko azaroaren 26an. Ama Otxandiokoa zuen. Esne-saltzaille ibili izandakoa da. Elkarrizketa egin zitzaionean Kukutza Etxebarria baserrian bizi zen Isundegiko bere emazte [Miren Bikandi](#)rekin. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Tiburcia Berrio Unzueta (1912)

Orozketako Amoruaga baserrian sortu zen 1912.eko urriaren 2an. Gaztetan neskame ibili zen. Senarra durangarra zuen. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Valentina Berrojalbiz Erdoiza (1905)

Zornotzako (Amorebieta-Etxanoko) Betzuen auzoan munduratu zen 1905.eko uztailaren 25ean, 11 urterekin lurretara etorri bazen ere. Gurasoak Amorebieta-Etxanokoak zituen; senarra, berriz, Etxetxua baserrikoa. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Miren Bikandi Bereziartua (1925)

Orozketako Isundegi "Ixundi" baserrian jaio zen 1925eko ekainaren 7an. [Senarra](#) urrun barik Otaloran bertan topatu zuen. Grabazioa egin zitzaionean Orozketako Kukutzaetxebarrian "Kukutzebarri"n bizi zen. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Gregoria Bilbao Astorkia (1921)

Santa Marinako Berna Etxebarria "Txorgona" baserrian sortu zen 1921eko lehendabiziko egunean. Aita etxe berekoa zuen eta ama Artatzakoa. Baserriko beharretan ibili zen beti. Senarra Etxaranekoa zuen. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Eugenia Cedrun

Carmelo Cedrun Otxandategi (1930)

Oromiño auzoan jaio zen, Etxanoko lurretan dagoen, baina Elizaz lurreta den alderdian; bizimodua ere lurretan egiten zuten. Aita Bilbon jaiotakoa, baina Euban (Amorebieta-Etxano) bizi izandakoa zuen eta ama bere jaiotetxe berekoa. Amorebietako futbol-taldean jokatzen zegoela, 18 urtegar Athleticen debutatu zuen. 16 urtez taldeko atezain titularra izan zen, Jose Angel Iribarri lekukoa eman zion arte. Handik Espanyol futbol-taldera joan zen, eta lau urteren ondoren Estatu Batuetako Baltimore Bays taldera joan zen urtebeterako. Futbol profesionaletik erretiratu eta gero, hainbat talde entrenatzeari ekin zion. Hainbat txapelketako tituluak irabazteko (Liga zein Kopa) bere amak egindako artilezko eskularruak ezinbestekotzat izan zituela esan zigun Carmelok. Bi semeren aita izan zen, horietako batek, Andonik, bere bidea jarraitu zuen atezain bezala. Bere berezko abizena Sedrun da, baina soldadutza etxetik gertu egin zezan, Athleticen abizenaren lehen hizkia aldatu zion. Beragaz egon ginenean berabagai bakararra izan genuen ahotan: futbol profesionalari lotuta bizi izandako garaiak.



Gabriel Derteano Txintxurreta (1919)

Orozketako Otalora baserrian jaio zen 1919an, eta bertan bizi izan zen. Bere aita Ibarrurikoa (Muxika) zen, baina 4 urte zituenerako lurretan bizi zen. Beti ibili da baserriko lanetan, sekula ere ez lantegian; Soldadutza aurretik 3-4 hilabetez baino ez zen ibili Ortiz de Zarate fundizioan. Andrea, [Felipa Zamalloa](#), Santa Marina auzoko Gaztañatzatorre baserrikoa da.

Frantziska Eiguren Bereziartua (1924-2018)

Arriandi auzoko "Tanborrenekua" etxean jaio zen 1924an. Gurasoak bertakoak izan arren, alde bietako aitona gipuzkoarrak zituen. Sei neba-arreba ziren, baina lehengusu bat ere beraiekin batera hazi zen, umezurtz geratu zelako. Arriandin bertan ibili zen eskolan. 13 urterekin Durangoko Legorburu medikuarenera joan zen neskame. 17 urterekin Durangoko "Amilibia y De La Iglesia" estanpazio lantegian hasi zen lanean eta sei urtez jardun zuen bertan. Kaleko bizi egiten zuen. Jesus senarra berak lan egiten zuen lantegian has zedin konbentzitu nahi izan zuen, baina honek nahiago izan zuen mendira joan artzain lanetara. Eta, hala, ezkondu ostean artzaintzatik bizi izan ziren. Jesus senarra Zornotzakoa zen eta ezkondu ostean Eubako Belaustegi auzoan erretero gisa jarri ziren bizitzen. Udan Belatxikietan egoten ziren ardiekin, Miña baserrian, eta neguan Eubara jaisten ziren. Zornotzan baserriren bat alokatzen zuten urtero ardiak edukitzeko bildotsak jaiotzeko garaian. 11 seme-alaba izan zituen, baina zazpi atera ziren aurrera.



Jose Elgezua Zabaleta (1918)

Santa Marinako Guardia baserrian Munduratu zen 1918an, eta bertan bizi izan zen. Paper-lantegiko behargina izandakoa. Andrea auzo bere Arantzamendi baserrikoa zuen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Sebastian Erdoiza Jaio (1916-2014)

Sebastianek Kirikiño batailoian borrokatu zuen Gerra Zibilean. Gero, preso legez erabili zuten langile-batailoietan Nafarroa aldean. Ondoren, hamaika urte pasatu behar izan zituen erbestean. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936](#) Elkartekoek.



Begoñe Andone Erdoiza Uribarrena (1920-2014)



Arriandin jaio zen, lurretan, Matxiñena baserrian. Ume-garaia eta gaztaroa Arriandin egin zituen, baserri-giroan eta jostun-kontuetan. Gerra hasi eta gero Durangora joan zen bere senideekin, aita eta ama Durangoko Batzokiaz arduratu ziren eta. Gogoan du bonbaketaren ostean Batzokiko ikurrina hartu eta gorde behar izan zuela. Gerra hasi zenean, senideekin batera Durangotik alde egin behar izan zuen, Bilbora lehenengo, gero Berangara eta, azkenean, itsasontzi ingeles batean Frantziara. Ondoren, aita Donibane Garazin utzita, faxisten beldur, amarekin itzuli ziren senideak lurretako baserrira. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936](#) Elkartekoek.

Jose Domingo Erzilla Narbaiza (1936)

lurretako Errekalde baserrian munduratu zen 1936an eta bertan bizi izan da beti, baita ezkondu ostean ere, andrea Bakixa auzokoa du. Bere aita, Marcos, lurretako probalari ezaguna zen eta ama Berrizkoa zuen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Maria Etxenagusia Ereñaga (1927)

1927ko irailaren 11n jaio zen Santa Marinako Gaztañatza Beazkoa baserrian. Senarra Abadiñokoa zuen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Frantziska Galarza Pantxi (1922)



lurretako Goiuria auzokoa. [Rosario Zamakona](#)rekin batera egin zioten elkarrizketa [Durango 1936](#) Elkartekoek, gerra garaiko kontuak eta, batez ere, Sebastian Zamakona Rosarioren aitaren inguruko kontuak jasotzeko.

Jesusa Galarza Uribeganekoa (1918)

Goiuri auzoko Zelaikoa baserrian sortu zen 1918an. Ezkondu ostean, bere senarraren etxera joan zen bizitzera, Santa Marinako Uribera. Gazte-gaztetatik gogor aritu zen baserriko lanetan. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Maria Angeles Gallastegi Asategi (1920)

Arriandi auzoko Txorrendokoa.

J.L Gandarias

"Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Jose Luis Gandiaga Rementeria (1930)

San Markoko Orobio Urruti Bekoa "Oromiñu/orti" baserrian jaio zen 1930ean. Kirolzale amorratu honen gurasoak Maumakoak (Ibarruri-Muxika) ziren eta Oromiñorantz zuzendu zuten bizitza osoa, semeak berak Tabernakoa baserriko alaba batekin ezkonduz. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Candida Gorostiza (1921)

Gregorio Gorroño Uribeganekoa *Baxixa* (1918-2012)

Oromiño auzoko Trazaola "Trazola" baserrian jaio zen 1918. urtean eta bertan bizi izan zen beti. Aita berriztarra zuen. Herri-basoez arduratu izan zen beti. Basoan, paper-lantegian eta baserriko lanetan aritu zen beharrez. Itxarkundia batailoiko gudaria. Emaztea zornotzarra zuen. Bere bi grabaketa jaso ditugu: lehenegoa, 1985eko uztailean egin zitzaion elkarrizketa bat da, HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako; eta, bigarrena, "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotakoa.



IUR-007 Hizlari ezezaguna

Matilde Isasi-Isasmendi Gallastegi Ezkerranekua
(1933)



Ermuko "Ezkerraneko" tabernako alaba, baina lurretan jaiotakoa 1933an. Gasteizen irakasle izateko ikasketak amaitu ostean, lan modura lar gustatu ez, eta aita Manuelen oniritziarekin emagin lanbidea ikasi zuen Basurton. Ermua, Mallabia, Zaldibar zein Berrizko ume askori mundura etortzen lagundutakoa da. 1978an Eibarko anbulatorioan jarri zen lanean, 19 urtez, Ermukoan jardun ostean 1952tik ordura arte. Erditzearen gaineko sasoi bateko sineskerak, tresneria ezak, gogoz kontrako haurdunaldiak, erditze ondorenak... ditu hizpide.

2005eko abenduko "Drogeteniturrin", Ermua eta Mallabiko herri aldizkariaren 130. zenbakian, bere esanak eta gogorapenak argitaratu zituzten iritzi-artikulu batean.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuan ere parte hartu du, batez ere garaiko emakumeen osasun beharrei buruz hitz egiten.

Josepa Izarzugaza Etxebarria (1920-2011)



1920an jaio zen Etxanoko Oromiño auzoko Zugatzaerdikoa baserrian; elizaz lurreta da, baina udaletxez Etxano (garai hartan herri independentea zen). Aita bertakoa zen, Etxanoko alkate izandakoa, eta ama Euba auzoko Belaustikoa, erroskila-saltzailea. 10 neba-arrebatatik gazteena izan zen. Oromiñoeko eskolara joan zen 8 urte gaz, baina denbora gutxi egin zuen, etxean lan egin beharra zuten eta. Gerra ostean txerriki estraperloan aritu zen 3-4 urtez inguruko harategietarako. 26 urte gaz Arriandiko Betiondo etxera joan eta denda zabaldu zuen; 50 urtez aritu zen beharrea bertan jubilatuta arte.

Leandro Jaio

1996an egin zitzaion grabazioa. Fernando Amezketarrari buruzko kontuak eta bestelako anekdota eta gertakizun ugari kontatzen ditu.

Segunda Jaio

Gazterik hasi zen neskame lanetan. Umetan eskolara gutxi joan zen, Bernagoitiko eskolara joaten ziren. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen. Maria Belar Etxanizek ere elkarrizketa berean hartzen du parte.

Josefa Kintana (1944)

lurretan jaio eta bertan bizi izan da. 6 urterekin hasi zen lurretako plazan zegoen eskolara.

Agustin Larrinaga Esturo (1922)

Santa Marina auzoko Amezketa baserrian sortu zen 1922an. Ama Bernakoa (Amorebieta-Etxano) zuen eta emaztea Orozketakoa. Txakolin-egilea zen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Natalia Lauzirika

"lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Eugenia Maiztegi Emaldia (1918)

lurretako Amatza Bekoa baserrian sortu zen 1918a. Garaikoa zuen ama. Arrazolako gizona zuen. Elkarrizketa egin zitzaionean lurretako Bixente Kapanaga kalean bizi zen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Sabin Mardaras Aranzeta (1923-2016)



Oromiño auzoan jaio zen. Ama bertakoa zen eta aita durangarra. Bi urte zituela Durangora joan zen bizitzera familiarekin. Bertan ibili zen eskolan, hasieran Ospitaleko eskolan eta gero Eskola nazionaletan. 13 urterekin itzuli zen Oromiñora, gerra hasi zenean. Santuena etxera ezkondu zen 1947an.

Kristina Mardaras Sedrun (1948)



Oromiño auzoko Santuene etxekoa. Bertsolari, gai-jartzaile eta irakaslea. Zortzi-bederatzi urterekin hasi zen bertsotan, Durangoko Ikastolan. Plazan lehendabiziko aldiz 1983an kantatu zuen auzoko (Oromiñoko) jaietan. Ondorengo emakumeei bidea irekitzen lehena izan zen.

Julian Mendiolagarai Zenikaonandia (1912)

1912ko irailaren 11an jaio zen Orozketako Etxaran baserrian. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Zipriano Mendiolagarai Zenikaonandia (1904)

1904. urtean sortu zen Orozketa auzoko Etxaran baserrian, eta bertan bizi izan zen. Arotz lanetan aritzen zen istripu bategatik utzi behar izan zuen arte. Purificación Agirregomezkorta, bere andrea, San Andreko Lazkoiti Etxebarria baserrikoa zen. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Pedro Mari Monasterio Alberdi (1921)

1921eko Santa Ageda egunean jaio zen Iurretako Ertzilurruti baserrian eta bertan bizi izan zen. Jubilatutako arte zenbait lantegitan ibilia eta ETBko langilea izandakoa. Jesusa Nazabal oromiñoarrarekin ezkondu zen. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.



Sotera Otxandategi Bediaga

Oromiño auzoko Santuena etxekoa.

Mariluz Otzerinjauregi Iza (1950)



Beste bi seniderekin batera elkarrizketatu zuten [Durango 1936 proiekturako](#). Grabaketa horretan aitita Nikasio Otzerinjauregiri egokitu zitzaizkion preso eta esklabo garaiak berriro bizi izan zituzten, baita Eugenio Otzerinjauregik eta Juan Otzerinjauregi osabak jasandakoak.

Hegoi Petite Madariaga (1990)



Iurretako Amatza auzokoa. Ama du bertakoa; aita, berriz, Valladoliden jaio zen eta sei urte zituela etorri zen Durangora familiarekin. Umetatik gustatu izan zaio musika Hegoiri eta, lehengusina ikusita, soinu txikia ikasteari ekin zion. Hainbat irakaslerekin ibili da ikasten. 17 urte ingururekin hasi zen trikitixarekin kaleak girotzen. 2016 hasieran "[Txapito Guzman eta Ibarrako langostinuek](#)" taldea sortu zuen lagun batzuekin batera, rantxera erritmoko kantak jotzeko asmoz. Pixkanaka euren kantak sortzen hasi ziren eta [bi diska](#) kaleratu dituzte. Amatza auzoko jaien antolaketan ere ibiltzen da, eta 2014a ezkerro Amatzako Trikitilari jaialdia ere antolatzen du.

Julian Santa Cruz Alzaga (1914-2011)

Santa Apolinako Barrenengoa baserrian jaio zen 1914.eko martxoaren 11an eta bertan bizi izan da beti. Andrea Oromiñokoa zuen. 36ko gerra eta ondorenak oso ondo kontatu zituen. Gerra irteterakoan, frontera joan zen "Mungia batailoia"n, hainbat frontetan egion zen: Lekeition, Artxandan, Solluben, Bizkargin... Santoñan preso hartu zuten eta kontzentrazio-eremuetan egon zen, Andaluzia aldetik trintxerak egiten ibili zen. Lantegian ibiltzeaz gain, ez zituen inoiz baserriko lanak baztertu. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Dolores Sarrionandia Irastorza (1930)

Oromiñoko Zugatza Goitia baserrian jaio zen 1930. urtean. Bere jaiotetxea metro gutxi batzuegatik Etxanoko herrian kokatzen da; dena dela, bataioa zein bizitza osoa Iurretara begira egin du. Ezkondu eta gero, Uribe baserrira joan zen bizitzera. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.



Benita Totorikaguena Trebiño (1932)

Oromiñoko Artatza auzoko Artatza-Goikoa baserrian jaio zen. [Karlos](#) anaiarekin batera elkarrizketatu zuten [Durango 1936](#) Elkartekoek, gerra garaiko kontuak jasotzeko.



Karlos Totorikaguena Trebiño (1926)

Oromiñoko Artatza auzoko Artatza-Goikoa baserrian jaio zen. [Benita](#) arrebarekin batera elkarrizketatu zuten [Durango 1936](#) Elkartekoek, gerra garaiko kontuak jasotzeko.

Jose Txintxurreta Garmendia Txintxu (1929)

1929an jaio zen Orozketa auzoko Lebaitegi Goitia etxean. Ama Otxandioko Zelaietakoa zuen eta aita Orozketako Isundegikoa "Isundi". 3 neba-arrebatatik zaharrena da bera. Gerra aurretik Durangon ere bizi izan ziren, Ezkurdi ostean eta Barrenkalen. 5-7 urtegar San Vicente de Paul ikastetxera joan zen. Gerra sasoiari, Karrantzara, Ribadesellara, Lleidako Nalec-era eta Tàrregara, Bartzelonara eta Frantziara joan ziren ebakuatuta 3 urtez, Josek 10 urte izan arte. Etxera itzultitakoan Barrenkaleko etxea apurtuta aurkitu zuten, Kukutzera joan ziren izeko baten etxera; handik Orozketako eskolara joan zen. Barrenkalera itzuli ziren berriro eta 11 urterekin maristetan hasi zen 15 urtera arte, eta ostean "Artes y Oficios" ikastera joan zen. Bitartean "La Villa"ra joaten zen musika ikasten, 10 urtegar hasi baitzen musika munduan murgiltzen: 18 urtegar, Santa Anako abesbatzean 1. tenorea izan zen; 30 urtean orfeoiko kide; lurretako abesbatzeko partaide ere izan zen. Futboleari aritutakoa, pilotazalea, txirrindularitza zalea eta mendizalea da Alpino Tabira mendizale taldeko kide hau. 20 urtez "Marcha Nacional de veteranos"en parte hartu izan du. 18 urtegar hasi zen beharrean Ortizenenean. Ezkondu ostean Mikeldin bizi izan bazen ere, azken 36 urteetan lurretan bizi da. Elkarrizketatzaileetako bat bere suhia da. Bere bigarren elkarrizketa 1991. urtean "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotakoa da.



Maria Txintxurreta Zarraoa (1908)

Orozketa auzoko Isundegi Etxebarria "Ixundi" baserrian sortu zen 1908.eko azaroaren 10ean. Andrea ere iurretarra zuen. "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Rosario Zamakona Areitio (1932)

[Pantxi Galarza](#) rekin batera egin zioten elkarrizketa [Durango 1936](#) Elkartekoek, gerra garaiko kontuak eta, batez ere, lurretako Sebastian Zamakona Rosarioren aitaren inguruko kontuak jasotzeko.



Felipa Zamalloa Uranga (1921)

1921eko otsailaren 4an munduratu zen Santa Marina auzoko Gaztañatzatorre baserrian emakume kantuzale hau. Orozketako Otalora baserrira joan zen bizitzera bertako [Gabriel Derteano Txintxurreta](#)rekin ezkondu ostean.

Hodei Zenikaonaindia Otzerinjauregi (1980)



Beste bi seniderekin batera elkarrizketatu zuten [Durango 1936 proiekturako](#). Grabaketa horretan aitita Nikasio Otzerinjauregiri egokitu zitzaizkion preso eta esklabo garaiak berriro bizi izan zituzten, baita Eugenio Otzerinjauregik eta Juan Otzerinjauregi osabak jasandakoak.

Jasone Zenikaonaindia Otzerinjauregi (1977)



Beste bi seniderekin batera elkarrizketatu zuten [Durango 1936 proiekturako](#). Grabaketa horretan aitita Nikasio Otzerinjauregiri egokitu zitzaizkion preso eta esklabo garaiak berriro bizi izan zituzten, baita Eugenio Otzerinjauregik eta Juan Otzerinjauregi osabak jasandakoak.

Matilde Zuazo Murgoitio

Santa Marinako Txastenean munduratu zen 1909.eko martxoaren 10ean. Proiektua hau burutu zenerako, 1991rako, ez zegoen gure artean. Elisabet Agirrezabal eta Maitena Urdangarini esker lortu zuen Alberto Erraztik grabaketa hau, hil aurretik beraiek egindako grabazio baten bidez.

Ezequiel Zugazartaza Sagarna (1929)

Iurretan sortu zen 1929. urtean. Ama Dimatik etorria zuen. Maiztegi A. eskolan bizi zen. Emaztea ere iurretarra aurkitu zuen. Ezaguna da bere sakristau lanengatik, batez ere. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. lurretako kofradiak I

- **Hizlaria(k):** Gorroño Uribeganekoa, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia
- **Erref:** IUR-006/001
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena:** Pasarte honetan kontatzen duena nagusiei entzundako da, Mendizabal boterean zegoeneko. Inguruko basoetako zorrak Durangoko eta lurretako herriek ordaindu behar izan zituztenean, dirurik ez zegoela eta lurretako herrian sei kofradia batu ziren zorrei aurre egiteko.

Transkripzioa

Onen basuen ixekera sera, sera a: Onek basuok pa, lenauko denporan baten, esaten dabie lengo sarrak, Mendizabal gobernanteie ixen sanien e... eiabela ba, nasiñuek, ba sor batzuk ein sittuela, gero ba ayuntamientueri botautzosan karga batzuk, gobiernu sentralak, da gero ba, ayuntamentuek Durango (Durango) Ijorreta (lurreta) ayuntamentuek eseuken dirurik e, orrek sorrok pagerako estaderi, da lelangoko pruebie einbierrixeban segun lenauko sarren esakerak ba, propietarijjeri emon gurijjotzesan ba onek basuok pagetan basittuen estaduek ipinitzesan sorrak, baya arek pe esien kapastu ordaintzeko orrek sorrok, da gero ba plasuek allegeubiaben da estadue eguen dispuesto jabetzeko onek basuok berak, da orduen se iaben Ijorretako ayuntamentuek? Ba sei Kofradijjak reunido sittuen, da sei kofradijjari ofresidutzien ba ze, bueno onek sorrok pagetanbosues e, nik ordaindukot, dirurik es baia ordaindukot, oseake baso lurrekin onekin ordaindukot, da onek basuok dekie istorijja bat, oseake, Ijorretak pageuaben dirurik geijjen, Ijorretak deko etariarik geijjen, hurrengo San Faustok pageuaben dirurik geijjen, da proporsiñuen a'pe deko etaria geijjau, da gero ba sera: «Orozqueta». Gero «Santa marina», da «San Markos», da gitxien pageuabena san e... gitxien, ixen be txikijje da, oso arlo gitxi arrapetan deu «Gojjuriko» (Goiuriako) kofradijjek, besinddadie be txikijje da, da enproporsion ba txikijjena da: Gojjuriko kofradijje, oseake seiren etareak suponietan dabien eun da irurogetamasortzi etarea, sertzien die lengo eskritura sarretan. Baia lenau orrek mojonamentuek, danak daus eindde, baxotxa bere parselak da baxotxa bere terrenue, da baxotxa, bere lurre deko kofradijja baxotxak. Baia beti beti kolabore'u, kolabore'u, kontribusiñuek pe konjuntuen pagetan die, aministrasiñue en conjunto eittu danok, oseake, kolaboretan da danontzat iguel. Gero, artu dien diruen amnistrasiñue ixen da, bueno: ciento setenta millones artu die kasureko esta, da onen amnistrasiñue da ba pageu abogeuen goraberak da gastu gutijjek eiñ, da gero repartuek ondie, da ori diruori ba baxotxak errepartetan daniel, kofradijja baxotxak, ba sortzi milloero beratzi esta kasureko da nesesidaderik andijjenak dausen lekuetara, bai kamiñue, bai asfaltue, bai iberduero, bai telefonue, bai iturrijje, bai saniamentuek da orrek gausa gustijjetarako ba enplieu die onek diruok bajo recibo, bajo el recibo, responsabilidade gustijjas, aitzosu, da kofradijja gustijjek kolaboretan dabie olantxik. Da dekus, esiertu bat dau, de momento, askok kritikeu deu, Durangoko Ayuntamentuek pe kritikeu deu. Durangoko Ayuntamentuek gurixendabena: guk esteiule jatortu, patxaras, da ondo

resulteuda ondo amnistreu deigun bes, oseake, asko estimeuko aben Durengoko Ayuntamentuek e..., guk emen burukatu, ero asarre bat atara ero gasteu malamanera, ero granujada bat eñ aitzozu. Da arek eurek ba eingo abiesan orrek bierrok Durengoko Ayuntamentuen se legalak estie ixen da tranposuek eta rateruek da lapurretan ein gurixendabienak ixen ie diretuek eurek.

1.2. Iurretako kofradiak II

- **Hizlaria(k):** Gorroño Uribeganekoa, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia
- **Erref:** IUR-006/003
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Heria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
 - Heria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
 - Heria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Iberduerok lineak euren Iurretatik pasatzeko firmak batzen ibili ziren lurren desjabetzerako. Lurren truke kofradia guztietakoek dirua jaso zuten. Baina udaletik diru hori ogasunari emateko agindu zien eta arazoak sortu ziren.

Transkripzioa

Guk e..., artu gañunien, oseake, paseu sanien linie «Lasier selaitik» (Lasier-Zelai) Itxaso-Karanza paseu sanien, etorri sen Iberduero geure etxera etorri sen neuana, da eruen niñoyen mojoiek erakusten, eruen niñoyen «Laster selaitik» geure terrenue sein sen, da onradamentien metalikuen pageustien egune, da enfin. Gero etorri sen espropiasinñue, etorri sen, da firmak eskatu abiesan, firmak eskatu abiesan da, oba es! firmeuko eskentzen ba Iberduerori? Da gero aren terrenuen alderako etorri sen diru Bat ciento setenta y tres mil pesetas ixen san diru ori, da Iberduero, etorri onaxe, «Trasolara», da ontxe gausen mai onetan, e, alabie neskatotxue da ementxe pageusten Iberdueroko serak, espropiasinñoko injiñerue 173 mil pesetas, gero juen gintzesan Don Carmeloana, Bilbora, Mendibe ta bijjok da esauskun:

-Koño! Ser dabixue?

-Ta auxe ta auxe, onantxik ta onantxik etorri gara se deskoiduen bat eñesteigun Iberdueron, ba neuk teket dirue etxien, da responsabiidade txiki bat da, txiki bat da neuretzat, iñoen dirie, seoser paseuko balitze ba enfin.

-Es, es, es es... juen da seuek gurosuen banku baten eixue ingresue, eixue dibidendo por seis, sei kofradijjena eixue ingresue ta esta esebe pasetan. Ori abixu ona da, gausen e... momentuetarako, ori abixu ona da.. Bueno, gu be pixkat asi ein giñen. Iberduerok selan pageuskun ori propiedadeko diruori, da serien, bueno ba pixkat sabaltzie komunidu ixen jjakun, da pixkat jentie entereuditten ba. Koño, onantxik eta onantxik Iberduerok pageuskus onek diruok eta enfin, ba olan. Gero ba Ayuntamentuek eiaben estudixo txikijjen bat, eiaben, «geu gabixek emen gusurras da kontuas da lapurretan einguran, da esinjuuok eñ, da oinbe Iberduerok ba, pageutziek eurori erresoe justuas, registro propiedad eurek

kosta be eittosak, eurek tosak ixen be, da guk ilegalmente kendu ein gurutzius, da oiñ orrek di ruok setara kendukotzius? Geure suposisiño bat da, Ayuntamentuek eiabiela pleno txikijjen bat, eiabiela eurok neusitxuok, guri onek diruok sertzeko, da oinbe or deket kartie, da deku danak de recuerdo esanutzen alkateari, esanutzen ba se:

-Ba ik iñdduala bakie? Ik estok bakerik eiñ, se iñungo alkatiek, iru alkate paseijjueus da, beste alkate bijjen firmarik etxeuat etxien, irie bai, ire firmie antxe jjekuat. Da motibo ganera, orrek los ciento setenta y tres mil pesetas Iberduerok ernouskusenak e, berrogetasortzi orduko plasuen barruen e , entregetako ero asiendan ero J uesien, Primera Instanciako Juesien entregetako berrogeta sortzi orduko plasuen barruen. Bueno batzartu giñen da, batak en da bestiek an da bestiek serien, da bueno, ni neu es, ni neu artu neure libretie da neuri toketan jjatan dirue, etara Banco Biskajatik eta Hacienda da Juzgado de Primera Instancian entregeu baiño lenau karselan usteldu eingo nok, baia ni es e..., seni, lenbe egonda najjauk karselan, au amenasuau ganera txikijje, ni neuk es. Bestiek pe ba bueno.

Danok atzeratu abien da pageu sien berrogetasortzi ordu, ingurok, da danak pageu sien. Da kartiek ipintten deu, kartiek ipintten deu: ori diruori los ciento setenta y tres mil pesetas e... Iberduerotik artu gañun dirue, berrogeta sortzi orduko plasuen entregetako Hacienda edo bestien, len be esan dot baia repetidu einbiot atzena emoteko. Da berrogeta sortzi orduko plasuen barruen entregetan espagaiñun ori diruori selan ixengo san parte emonda Gobernadorie, aitzosu, da areattik esanutzen alkateari:

-Bakiek eiñdduasela da esai egon e. . .se ik eiñualakorik iñor etxok eiñ, querella kriminalien sartu atzenien e... Iberduerok onrradamentien pageu dirue, da orrek berrogeta sortzi orduko plasuen barruen entregetan espagañusen e... ondiño kerella kriminalien sartu geu? Se injjueu ba? Lenak gitxi osak ala? Ba bakiek ik iñdduasela diñok? Bakiek? Ba anjjekueuk ire kartie da ire firmie an jjekueuk de recuerdo geu garien deporarako, da gure atzekuentzat pe entxe geldittukok eterno sekula sekuiorun amen. -Ori es Gorroño!

-Ori es, orrek olantxi ixenbe einbijjok, orrek geusok esileijjes borreu, seuk eiñikuek tosak, gu es gosak juen orrek geusok ipintte, da liorik ipintten bes, gu gure lekuen ongosak, geure propiedadiok, geure propiedadien aministrasiñuen eruen eiñ gurixendosues, es erresoias e.... por abuso de autorida, por abuso de autorida, da gixontasunik estosue demostreu, iñopes, iru alkate paseujjus da irurok por estilo ixen sarie guretzat, se suen borondatie ikusi jjueu, suek lema bat eruen dosue danok, selan ero alan por aburrimento eruengosuesela pentzetan ixen dosue, guri lau baserritar kokoluori, bia gu aburridu eraitteko, estok kapas Durengoko Auuntamentue, da erri gustijje bes, se gu, gu milloyek ofresidute gausek tradisiñue eittiarren, tradisiñue eittiarren e... da ori prepareu aben gixonari sekule geijjau arpire begittu be etxutxiuk eiñ, sekule begittu bes, eiñ be estetziu eiñdde, asike, onrradamentien guk oixe da amistrasiñue. Onek istoriale andijje deko, onek ordubetekue be badeko esta, baia laburpen baten, seuek konforne basarie."

2. Aisia

2.1. Santa Marinako jaiak

- **Hizlaria(k)**: Etxenagusia Ereñaga, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto

- **Erref:** IUR-008/002
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:03:38
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Santa Marinako jaiak ez ditu ondo gogoratzen. Baina bere aitak kontatutako badaki eta horixe da kontatu duena.

Transkripzioa

“Santa Miñako jaiyek? Nik estekuas olako gogoapen aundirik, se ni seian gerran denporan arrapostén sasóe txárrekue. Da Francon denporan emen esan eitten, emen sekúlan esta itten jairik patxadas, es, emen Santa Miñako konfradiyan esta iñ jairik patxadas. Oin, nire aitte sanak esate aban Askórren, or goiyen dau, da, an emoten sala ardaue debálde orduen sasoién, da, badákixu, ordúen ardaue etxíen eskasa euki, guríen beti egon da txakóliñe, gure etxie txakoliñ-etxie ixen da lengo... Nik enauan esautu, se gerra eurreko txakoliñ-etxí(e), txakoliñ>etxí(e) gogorra, se guríen daus goíye maiye pa gure atartien kabidakuek, emen etxaurrien be badau erretratu(e), len len atara(r)ikue, etxaurreko matsa, ta guríe txakoliñ-etxie isénikue da, Kastañatzako txakóliña, Kastañatza Abáiñokua es, Kastañatza Iyorretakua. Da esate aban nire aittek, ardaue sela eote san `debálde' or, Askórren, San Kristobal eguna, “el diez de julio”, jéntia etorte ei san, ba, báskaiyekíñ dda, afáiyekin dde, gure dan beste ardaue eran da erdiyekín etorte sienien, ba, batzuk sóluen, da béstie kentzen, da, al dan modúen. Iñós sertu i si(e)n, or emen estarta bat dau, estarta oin serrátute dau, oin kamiñu(e) in ddalako etxín atzetik. Errégiñie ortixi paseta ie san, estaitt se errége ixengo san, Lekeittiyon beranieta abalako, “así ke” etxonek miistro asuntue dekos. Da esate aben nire aittek orti etorri goitti bera rétuén, da klaro, or pentzau es, ta sasiye, eta estartan sartute bate paño geiyau egote sala burúe aber nok atarako aben, da...

2.2. Inguruko erromeriak

- **Hizlaria(k):** Etxenagusia Ereñaga, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-008/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:04:29. **Bukatu:** 00:05:39
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Mariak ez zituen Santa Marinako erromeriak ezagutu, Arriandira joaten ziren. Azkorreko erromeriak ere ezagunak ziren. Bakixan ere egiten ziren, baina ez ziren hain ezagunak. Orozketakora, ostera, jende asko joaten zen.

Transkripzioa

Onek erromeriyonék estau eukin sekule... beti Arriéndik arrapau dau, nik estot esétu Santa Miñan erromeriyarik, Askóiren bes, e!, nire sasóerako mésia bai, oin be eoten da, baia esate abien len, jente ásko eote sala Askórren, asko asko, baia erromeririk estot esétu. Bakiya neu enas jun, baia Bakiyan oin be itten da, ni enas sekule juen, ni gaste gastetan juéngo nítxen, baia nógas? Esta isen olako romériya popúlarra, Bakiyaku(a). Oiñ geiyau itten da, oiñ popúlarrau plantau da, oiñ jente asko jueten da, baia

lén esan populárra. Samamesen estot pentzetan isen danik olako romeriyaik, se oin be eoten da or mésia, baia romeriya moukoik es. Emengo au béruneuko ausúek len, nik estot esetu,e!, nire éurreti isen da, baia jenterik geiyen esate abanaittik, Askórren juntau (a)bala. Nik esautu dot basarri erromeyarik popularrenetaikue, Oósketa, Santiyau, Santiyaun jente asko eote san, gure sasoién be bai.”

2.3. Muniketako erromeria

- **Hizlaria(k):** Arroita Jauregi Gandiaga, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-025/011
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:20:46. **Bukatu:** 00:22:20
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Domekero Muniketako erromeriara joaten ziren inguruko herrietakoak.

Transkripzioa

Muníketa, Muníketa goiye, ántxe itte san errómeriya, es elixarik, es esebe, ántxe taberna baten junteu, únieta gintzesan, da uda ta negu, edurre pe bai, e, gástiek esteko órren billurrik, e, domeketan, dánetan, aráxe. Oromiñon bertan errémeriyetan, da gu tánok ára, áxa junteta sien Etxano, Ibérruri, Magúnas, Orómiño, iru lau erriko jéntie áraxe. Abústuen, óntxe Andra Mari Abústukuen ixete die jaiyek, oiñ iá esta itten da, baie gure denpóran itte san esta? juerga ámen, Orómiño beiyen itte san, da iñós juete geñén be bai. Muníketa óñes, igérri bes, igérri barik allegeu gora, ordubete, ordubete bier, berántza ordu erdi éuela arin etorri eskéo. Nire gixon defúntue(n) arrébie bisi san erromeriya eote san lekuti árantza nire etxera beste, erdinguru euki giñun, da nire gisón defúntue etorte san Orómiñora da birén krúsie átzero tabeman, e, doble esate utzien bata bestiei, nebarrebak nebarrebekin eskonduta, ántxe reuníñue, txikiton bat eró seoser éran da, i orra ta ni ona, ta óla bost úrtien eró ólan.

2.4. Ezkurdiko erromeriak

- **Hizlaria(k):** Belar Etxaniz, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-032/013
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:19:18. **Bukatu:** 00:20:59
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Ezkurdiko erromerian soinua egoten zen. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantzan egiteko. kalabaza asko emandakoa da.

Transkripzioa

Eskurdiyen musika jote abien ordu erditti ordu erdira, da musika jote es abienien, ba, béstie sóñue, an kórruetan. Mutillei kobreta utzien dírué, neskai es, da gu, e, posi

parris. Amasaspi kalábasa emon dous ónguen, da mesedes etorte sien da, es, geo beste batzuk da es, da ála pósik. Penas? Bai sera, penas! Ainbeste mutil átzien, da pénas? Ni mutil bat onduen es ne(b)an ikusi domeka bitten segíduen, ori es, gero! el esto pier. Domekan ondo(r)a etorte basan, bueno! Gastie nitxen da, nik es naban gure nóbiyo órduen. Bueno, ba, klaro! itte sien fásil, arkaleas jantzaldi bat, eta beste bat, eta beste bat, ge(r)o etxea lagúndu eta iñ eskéo, bákisu, lagundu fórmal, básuen esebes. Ni be basoti es, ni kaleti, kriyá neue lekuti ibiltte nitzen. Ni ia basoti dekuan gisonas etxea etorte nitxen, ogeitabi urteas iá iperragerren gelditu nitxen, da orduntxe nobiyue topeu, ogetasortzi artien beras ibilli, da gero eskondu, baie beraas, beste bapes, ostien eneban gure, guápue isen san gástetan da... oiñ txarto oin sarra gara ta.

3. Baserria

3.1. Karobiak I

- **Hizlaria(k)**: Derteano Txintxurreta, Gabriel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto
- **Erref**: IUR-010/002
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:00:08. **Bukatu**: 00:02:45
- **Transkribatzailea**: Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Etxe ondoan zuten karobia. Zelan egiten ziren azaltzen du. 50 bat karobi ingurua zeuden inguru horretan. Karobiak solorako erabiltzen zen, kareak lurra samurtzen du. basoan otea ebaki behar izaten zen. Amaitu ziren, ez du merezi eta.

Transkripzioa

Karabiyek? akórdu(a)n ondo dekúas. Arreskero jun dan iruogei eo iruogei bat urtien esan erreko bape, baia nik dosena bat urte euki nebasenien, amairu bat, atzénengo erre san órtxe. Orrek itte sien, sulo bat onétara, esta?, da gero itten san karabiyen barrúen, beste arku bat onétara, arku bat, erredóndue, da arén gánien atxárriyé kárgeta san. Kargeu itte san atxárriyé gánien, da goiyen arri-losakas tapau itte san, garrak eta andiyek urte estaiyen da, da karabiyek aspíttik káñu(e) éuken, da karábiyen, ótia sartzeko lekúen bentanillatxo bat ónakotxe bentaniltxoa da andixík úrkulugas ótia sartze san, da orrétaxe karie errete san. Oiñ esta itten, oiñ asko kostaten da ta. Lénau bákixu, nún irabasi be eseuen jomalik eta lénau karíak, emen badaus berrogetamar karábi, neu pe óntxe topatuko nekes erres, emíntxe, emíntxe, eméndixi Durongotik, ementxe kontórnuen. Lenau karabiyek, bi tte iru ta arkaleko onduen be badaus.

Orrek soluetaako itten sien sóluentzat kária ona da, lurre xamúrtu itten deu, érre itten deu lúrre, bai. Da oiñ órrek juen sién, órrek asko kostate ie (e)besa(n),basú(e)n otia erré be isete san, ero ótie ebái be ixete san, ote aundiye, es txikiye, ote aundiye. Da oiñ órrek karabiyok akabau sien emén, oiñ obrataako ta órr(e)tako, or Gemíkatikaántza dau karabiye, orrétaa ta de(d)iketa(n) dana, óbrataako ta, baie ostántzien iñún esta itten karabi(r)ik, e, iñun bes. Estau merési(d)u, jode! ésta erréntablie, bost ogerleko irabasteko egun gustiyen inbiosu biérrien, gaur, barris se!, sea bost ogerleko es, txakurraundi ba pes, gaur estau, jagi tte akabo da orí.

3.2. Eskolara gutxi

- **Hizlaria(k):** Bilbao Astorkia, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-024/006
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:04:43. **Bukatu:** 00:05:50
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Amezketako eskolara joan zen, baina umetatik behar asko egin du eta gutxi joan zen eskolara. Ama plazara joaten zen eta beran etxeko lanak egin behar zituen. 11 bat urterekin utzi zuen eskola.

Transkripzioa

“Eskólara? 'Pilástrara' Amesketaa, baie eskólara gitxi nik, se guk bier asko. Ni(k) bier asko in ddot, nébieri gure ise abien erakutzi geiyau, mutillek ei aben eskóla geiyau, baie nébiek buru txarra, óbie nik, askó be, baie juen esi, se ama guide beti plásara egun gustietan bendéjies, esnie ta bendéjie. Gu asko. dénetik el, kipula landérie, porrú landárie, asá iandárie, artue ta dánetik, da ni txiki txikitteti, ni, eskolati urten ei naban amaika urteas eró, da órduen be, amaika urtes urte nabenien, lapiku(e)k eta itte nebasan ni. kóntuek atara! Beskaiye ipini tte, eskolatik, e, urtete naben da, errekreuen, da etxea etorri ta lapíkue bisan, a plásara jute san da, se bos lagun eon gintzesan, da áma plasara juen eskeó, ba.

3.3. Beharrea jaio eta beharrea hil

- **Hizlaria(k):** Bilbao Astorkia, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-024/009
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:10:08
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Marrubi asko izaten zituzten etxean, egunero 6 kiloko 6-8 kaxa batzen zituen. Bendeja asko izan dute beti eta lan asko egindako da. Lanik txarrena gari jotzearena eta piperrak ereitearena zen.

Transkripzioa

Eukítte geñun mallukiyegas, asko mallukiyak, egun gustietan jute san astóas plásara, kaja(k) kargauta astoan, da eukitte geñun malluki-burue, ólakotxe burúeel, ólakotxe. Sei killoko kajak goxien goxeti ju(e)n bai. Da batze nabasan ni(k) egunien egunien, sei sortzi kaja diariyo, mallukiya, da atzáskalak eukitte nabasau gastaute, odola (d)aiyola, min itte jaten gero, kirtena ebáten, atzeneako gastaute atzaskalak, min de asko eukin dou. Gero pipérra, órrek ikusiko baseko selaku(e) dauen oin, bedarra ebateko dau, e!, or piñuen kontran, a dana piperra eukite geñún, jateko pipérra, piper lodiye, burdiyas(?) ixete aban astiro, da, ostien se saltzen san bes, da olantxe gausa gustiyek, gu bendéja asko eukín ddu.

Ni bier asko indde nau, erosiñei pregunteu émen. Leleko, amabost euki na(b)esen, ebakusiñuen bueltan amasei iã eiñ (n)abesan, gero “tío gerran il san, “tío” gerran il sanien óniño nebie gastie ise san da, aittas neuk ibili bier buruti kargetan, neu karga-deskargan beti, gero nébie piskat asi san da, a defendieta, gero a pe soldau jun bier, ogetasortzi illebeta soldau eon bier, aittas neu karga-deskargan. Ni se burdi kargau ta deskargau uán! Da gero nébie soldautzati etorri san da aitta il, da gero átzea be ba bénga! Bierrik txarrena neuetzako ise san gari ebatie da piperrak ittie, se kantidatie ipintte geñun, makurtuta a plantetan, áren piperrak apintte siesenien serúa, da gariye jote sienien iguel. Bier asko, lárrei, bá(k)ixu bierrien jaiyo ta bierrien il.

3.4. Herri-basoetako lana

- **Hizlaria(k):** Arroitauregi Gandiaga, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-025/006
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:10:18. **Bukatu:** 00:11:30
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Baserriko bizimodua gogorra da. Bere aita eta senarra herri-basoetan ibili ziren lanean, diru asko irabazten ei zen. Bera eta ama etxeko lanetan eta ganadurekin ibiltzen ziren. Iurretako herri-basoekin bukatzerakoan, aita eta senarra Garaikoetara joan ziren lanera, eta astea han pasatzen zuten.

Transkripzioa

Bisímodu gogórra baserriyen, gogórra, jute(n) san gisóna, órduen sartu-jarriek onáño ite sien, da kasualidatie ise san, ónek, kofradiya-básuek ero lyorretakuek sartzen ibili sien, landárie sartzen, da nire aitte defúntue, Jainkue séruxan euki deiyelal, ibili san, ba, piñó-suloketan, etxien onduen asitte gorantza egon sien da, piñó-sulóketan, da, ba, destáju emote utzien, da diru pillotxu etara, da ni(k) (u)kuste naban biérrien, da, órrek fásil sartze eki(e)n, baia dirú geiyau irabaste san, an, e, ba, illé batzutan, negúko libre batzuetan, aitte ta suíñe be, ántxe ibili sién, ta orduen ama ta ni, ba, etxi(e)n. Iru bei esnerako, da beste bi bustérrireko, bos bei eukitte geñusen generálien, andi bi esne gitxitxu dekiena, da beste iru olándesa ser geitxuau dekiena, esné geitxuau, da gero, ángue akabau abienien, ori be báda, Garaire asterako jute sién, astelenien juen, da sapátuen etorri, e!

3.5. Behiekin lanean

- **Hizlaria(k):** Arroitauregi Gandiaga, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-025/008
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:16:28
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto

- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Gizona basoan zegoen bitartean bera behiekin ibiltzen zen. Egunerokoan egiten ziren lanak azaltzen ditu.

Transkripzioa

da esan duána, gixona biérrera, da ni góxien beiyek batu, eratzitte esníek, ámak erute ustesán, kamiñora bajate abesan, ordúen es euen an nunbaitte búeltie dauen kamiñue esan eon orduen [...] esnie(k) be ára, béko krúsera, ba, soluetati, landati(k) bera, ba, da ámak itte ustesán. Nik itte naban péntzuek emon góxien beiyeri, da esne-beiyek landara etara, bestiek bustértu. lótu, da beiyek sústetako morúku(e)k, “sobre todo” amabi urtien euki giñusen itzelesko beiyek, ikusitte be sustetako moruko, arrimetan be, órren ondoa esin leike juen, baia tire! ain mántzuek isen sien! [...] eitte nabasan ipini bustérriyen, sápa!, almádilla, ganeko mántie ipini, da ekarri bat, lotu bat, da geldi, bestie ekarri artien eutzi, béstie lotu, ipini fundamentuas, da ipini beiyek, lotu garátxue, estosu jaingo ser dan, erramenttieri engántxetako kateak, ori san ólan, trón(g)öttxu bat, sulótxue, da a sartu busterriyen sulúen, da alákue sartu sotza, atzera korriu estaiyen, da gero a kátia erreminttieri solúen katíetu, da lelego erute nabasan góldie basan ero béie basan ero dana dalaku(e), da lélego erute nabasan leleko erreiyera erúen néuk artu lepúen, da gure amák esan be bai: - Suri beíttuten nik estai(t) sélan erun leiken ori katxarruorí lepuen. Ni ólantxik makarra, baie iñddertzue, da jan be bai, gogórra jaten be, ta inddertzue, da ipíni, e, makíñie erreiyen, da sartu káteak lelego biéjien neu éurreti eta, erute nabasan, kóllaria artes jueteko, gero árek esabien lagun bier iñ, e, gero: - Gora txiki, gora apála, gora txiki, gora apála. Arek éurreko lagune beño ásko obeto, kantzeualdi bat emote notzien goldaketan eó, labrantza gustiye neuk ibiltte naban, e! [...] oiñ ereitten da apur bat, punta bat, babíe artziarren, baie orduen andi bixímorue etaateko kasik, ganeuentzako asko be urterako ixete san, orduen be ánegak, soluok osu(e) pe ereitte giñusen, da bakar bakarrik gixona biérrien, da labrantzia ibilli naben nik, úrtietan

4. Politika

4.1. Gerra: frontean eta presoaldia

- **Hizlaria(k):** Santa Cruz Alzaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-014/004
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:04:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Bere gazte denbora gehiena gerran pasatu zuen. Aurretik basoko lanetan aritzen zen bere aitagaz batera, Asturiasko minetarako apeak egiten. Gerra irteterakoan, frontera joan zen. "Mungia batailoia"n, hainbat frontetan egon zen: Lekeitio, Artxandan, Solluben, Bizkargin... Santoñan preso hartu zuten eta kontzentrazio-

esparruetan egon zen; Andaluzia aldetik trintxerak egiten ibili zen. Hiru urtez etxera etorri barik egon zen.

Transkripzioa

Gure gaste denporan, gerran denpora geiyena ta, lelego soldadu juen artien, básuen biérrien. ápeak itten, Ondarruan da, Elgetan da, leku askotan Asturiaseako ápeak itten, míñetarako. Gure aitte defúntuek, erosten sittun, da gero bárkuen biéldu, Ondarruati(k). Gero, ba, gerrak urtenda kittul, frenteti gora, prisioneru eó, iru urtien etxea etorri barik, ba, fréntia lelëgo émen dánien, batallói(e) formau sánian "batallón Mungia" da orti oiñ juen geñen, lelego seréra, Villálera, ántxe in geñun eotaldi bat, gero andik Lekeittiyora, Lekeittiyoko fréntera, gero andik, e, Sollube be bai, Artxandara be bai, Bixkérjire be bai, krísto gustietara, da gero andik prisionero se(r)a arrapo giñusen gu italiánuak, Santoñan, an eon geñen emenguek asko, Durangokuek, Larrínaga ta, asko, asko Iyoretan bi be bai Tolóetxu ta, Aldekoa, il san bera Demetrio, da asko. Prisioneru jeusi giñen Santoñan da ándik, e, Mirandara, "kanpo-konsentrasiñora", Mirandatik, e, Saragosara, geo andi barrido Mirándara, da gero ándi Sebíllara, gero ándik trintxerak itte Kordobara, Francontzako, da Kordobatik jun geñén Granádaa, gero Graná(d)atik Málaga. Malagan in (g)iñusen amaika illebete "kanpo de abiasíñu(e)" eitten, amaika illebete jústuen, gero andi barrido etorri geñén Kórdobara, ango trintxeragiñek, eskóltias.

4.2. Batailak

- **Hizlaria(k):** Santa Cruz Alzaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-014/006
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:04:26. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Bataila batzuk aipatzen ditu: Elgeta, Sollube eta Artxanda. Gogorrena Sollubekoa izan zela dio. Artxandara Jose Antonio Agirre lehendakaria etorri zitzaizen zoriontzen.

Transkripzioa

Batallak itzelak, otia! Elgetan be bai tte, élgetan be go(g)orra eon san, andiyena andiyena eongo san Sollúben seguruti, ni eon nitxen lekuen, Solluben. Gero ándik Artxándara, Josantonio Agírre etorri yakun felísietan, baia es eben abioirik eta, eser da guk esin eser eiñ fúsilekin bakarri. Errékie pasau an lantxetan, subiyek bota abiesan Biibon, da lántxetan pasau bier Deustuti Sorrósara, jo... Iru urte,e! ariñ esate (d)a "treinta y seisien' urten, etxien, da "treinta y nuevian' etxéa. Etxeko kinttue nitzen ni da, justu justu arrapau gérriek, gorriye ta diábrue, sasoi ona al guento!

4.3. Fronteko armak

- **Hizlaria(k):** Santa Cruz Alzaga, Julian

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto
- **Erref**: IUR-014/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:06:01. **Bukatu**: 00:07:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Artilleria zahar bat eta metrailadore txiki bat baino ez zuten frontean. Gernikatik bonbardaketa osteko egunean pasatu ziren. Abioiak Nafarroa aldetik etortzen ziren.

Transkripzioa

Sarrítte éurek, genéal ataketa abien, se éurek eukien abiasíñue eta artilleriye, kristo gustiyek, guk es genken ser bat, artillería sar bat da arnetrallaora txiki batzuk da esebes, árenakiñ ikusitte ésebes, da áren abioiek etorte sienien, ostie!, árek abio baltzak, bónbas kargeuta. Gernika bonbardeau (a)b(i)enien, astelen baten bonbardeau, da gu martixe góxien erretiradie ándik, an iríduék oniño errekan. Au ta Otxandiyo ta, bonbardeau abienien Elgetako fréntien, genéralien Naparroati etorte sien, Naparroako “kanpo de abiasíñoti”, orti, argitte sien. Txakurre pe susteuta eoten sien. Saátia entzute abienien, txakurre pe susteuta.... Síénie jote abien erriyetan sentitze abenien, sirénie jote abien, jéntie errétietan al da lekuen, baia nun? jente aéntzako es euen séik, dana jo ta aústu itte abien da, gero órrek kasak txikiyok ametrallaóras lurre jotén bajatzen sien iós! Fréntian da árek bajátu, gu perris, e, blindeute eusela ta billurtute tietzen isete geñen fusillas. Da gero Málaan prisiónero eon nitxenien “kanpo de abiasíñuen” birriten eon giñun gu, “kanpo de abiasíñue” itten, an ikusten giñesan, “kauen san diós!” Onek biindeuta eusela! sarritten billurras etxúnda pareu ta nok tirtuko tzó ametrallaoras da... sériyuek sien árek, sériyuek!

4.4. Gerra hasiera; soldadu deituta

- **Hizlaria(k)**: Santa Cruz Alzaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto
- **Erref**: IUR-014/010
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:08:36. **Bukatu**: 00:10:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, Zornotzako jaiak ziren, Karmenak. Bilboko kuartelera agertzeko agindua jaso zuen, eta handik Iruñe era joan zen. Mungia batailoiko Santxo Elisegi konpainian sartu zen beste herritar batzuekin batera.

Transkripzioa

Karmen urrego domékia san, Sorróntzako jaiak, “diesiocho de julio” urte abena gerrie(k), oniño iñok es ekiyen eser da, erromeriyen jéntie, beteta Sorróntza ta aläko baten eutobusek:

- ¡Viva la República! ¡Viva el Comunismo!- da estaki ser.
- ¡Ahí va la ostia! Se paseta ok!- enségida sabaldu san:
- Gérriek urten yok!

Tranbiye euen orduen, tranbi(e) sarrak eusen, bete sien tranbie sárrak, bakotxa al da moduen desaparesiu san Sorrontzatik. Da andik egun bi baño aríñau, abíxua niri kuartelea presentetako soldadu, orduntxe jeusi nitxen ni tte, kuartelera Bilbora. Andik soldadu seera Irúñera. Gero batalloie formau sánien bertako jéntias, nobera pe gurau juetia eseunekin da “batallón Mungia”, nazionalisten batalloiek formau sien da, permísue eskatu naban militarretati da baietz etorteko “Batallon Mungia konpañía Santxo Estegi” otxandiyarrak eta Elorriyo ta onákoxe jéntia, [...] lurreta aldien be asko, Zamalloa arrapo be bai, geiyenak ildde daus baia, Tolóetxu, Isa be bai, Iyorretati asko, asko baia, Agorria bisi da óniño, Galartza ta asko asko.

4.5. Gurasoak ebakuatuta; etxea okupatuta

- **Hizlaria(k):** Santa Cruz Alzaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-014/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:37. **Bukatu:** 00:11:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Bere gurasoak ganaduak hartuta Artxandara joan ziren ebakuatuta. Bere anaia Kirikiño batailoiko gidaria zen. Etxera bueltatu zirenean etxea okupatuta aurkitu zuten, bere aitari diru apurrak eta pinudiak kendu zizkieten.

Transkripzioa

Aitte ta ama be ebaku(a)u sien, sartzeko etorri sien Francon ejérsitue ta aráfíxkue ta iru bei eró etxien da beste anaiye nerie, ba, txófer juen san Kirikiñora, batallón Kirikiñon txófer eon san. Da aitte ta ama bákarrik, da artu kamioien da erue abiesan leleko sera ei abien Artxandara, ganau aráfíxku(e) ta kristo gustíes, da gero ónek arasoetan asi sienien, andi martxau in bier. Artu andik da juen sien sere(r)a Torrelaveara, kóntuek atara!, Torrelaveara kamioien, ia ser dan, etxí(e) abandonauta, Torrelaveara kamioien, gu be fréntien, an be bakarrik, guk es geken etxerik eta es kristorik, etorri sienien áuxe okupauta, beste batzuk, éurek, koittauk, sute eskíñen parau ta kanpo-jentie etxíen, da tire! tirétu in bier eurrera. Gero martxau abien, aitteri kendu otziesan eukittun diru ondarrak eta piñudiok.

4.6. Sollubeko frontean

- **Hizlaria(k):** Santa Cruz Alzaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-014/015
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Sollubeko fronteko kontuak.

Transkripzioa

Italianuei eiñ utzien sarrásiñue Solluben, ostie!, pena emateko modúen. Arek pentzatu aben Sollube gálduta euela, iñor estauela, da gure batalloi(e) da sozialista batallo(e) bat eon sien goiyen, ta formaute etorri sien árek, seetik, ba, Bemieotik, Bermeotik Sollubera kamiño betian etorri sien. "Fuego" aintxen dabe gure aldetik, goiyen, goiko gánien, áren áíñeketie barrido berantza, ango, ango... Antxe arrapau (g)untzen materiyaletan be, gero Bilbon eon sien eskaparatien an arrapa(r)iko fusíllek eta kristo gustiek [...] baia gero ordu bete baño aríñeu, etorri san bueltia itxosoti, asi sien bárkuek, Francon bárkuek, da antxe ibilli geñén, olako "rompedora(k)" botate abiesan, berrogetamar kaniken moruko serak eskopetak goi goiyen da sabáldu itte abiesan da, laster arrapau da erre iñ abien Sollube, bai bonbakiñ, da bai itxósoti.

4.7. Lekeitioko frontea

- **Hizlaria(k):** Santa Cruz Alzaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-014/018
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:18:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Lekeitioko frontean, gauetan "escuchan" egon behar izaten zuten. Bertan bizitakoak gogoratzen ditu. Sasoi hartan ere "entxufau" asko zegoela dio, gauza bat esan eta beste bat egin.

Transkripzioa

Lekeittiyoko fréntien, e, suerteu ei san da itzélíe ei naben baten. An gabetan “escuchan” eon bieketan bat, fréntie badau or mendiyen, da an barránkuen iño bes, an barrénien eote san “escucha” bat gabien sentieta bosú kontrariyoric. Ta orduen arranakiñ ataketa abien leku askotan, ardiye die morúen. Da klaro! botata txóletak, ba, sera, pótiék eta botata trintxeratik éurrera. Neu antxe, ni tta beste bat "escuchan". Tikilin, takalan, euriye san sano gógor:

- “¡cauen la puta!” Bayatosak ontxe ardiyek arranakiñ!

Tikin tan tikin tan, da emote utz(o)u parte goikoeri:

- Badatosela áñketan.

Asten die goiku(ek), ametrallaora txikiyok ta fusillok, da pótiék siela. Klaro! euriye jote abenien gogor árek txóletak saátie itte abien, ardiyen arranen moruen.

Esaie fiyetan, “adémas” gabien an egotie... gero, ba, sasoi ona, sékula gripe ba pes, oiñ beti katarrue ta krístue. Bermion be, kakatza a(r)tien sartute, egon be gabien be ántxe egon bier aixekiñ.

“Orduen be entxufau asko be egon san, emen Gora Euskadi asko kalíen, da gero gérria etorri sanien, intendentzietan entxufeute, nobera juen erdi billosik iguel da, karlístari tabarduak pas(e)tan igual.

4.8. Lekeitiotik ihesi

- **Hizlaria(k)**: Santa Cruz Alzaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto
- **Erref**: IUR-014/021
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:22:25. **Bukatu**: 00:22:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Lau batailoi zeuden kostan, eta Francoren aldekoek Trabakutik Iruzubietara nahi zuten pasatu. Han harrapatuz gero, preso hartuko zituzten. Baina eurek alde egin zuten eta Gernikako bonbardaketa osteko egunean pasatu ziren Gernikatik Mundakarako bidean.

Transkripzioa

Orduen be gur(e) abien Francoren serak sartu Trabakutik, Oistik, Iusubietara, estok aitxen, da gu lau batalloi geñén, kostan, órrek eurrie arrapau eskeo, au sarrátu eskero, prisionero jauste geñén an barru(e)n. Da órrek sartu sien ándik, Oistik Trabakure da gu juxtu juxtu justu Gernika bonbardeau da juxtu juxtu astelen bateko bonbardeau da martitxenien pasau Gernikan, errekan ondiñoko jentie illde ta sue, da ánditxik seréra Mundekara.

4.9. Komunisten batailoia eta abertzaleena

- **Hizlaria(k)**: Santa Cruz Alzaga, Julian

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto
- **Erref**: IUR-014/024
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:26:23. **Bukatu**: 00:27:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Solluben komunistak ere bazeuden. Gogorrenak eurak zirela dio, EAJ-PNVkoak. Durangon komunisten batailoia zegoen, Malatesta batailoia.

Transkripzioa

Komunistak Solluben be, néskakiñ da énbrakiñ etorri, filarmonikias da frentera “Viva la Virgen” etorri sien, árek arrapate abiena eruen da, néskakiñ dda [...] Gogorrenak émen geu, PNV-kuok, biskeittarrak, sozialista pe baeusan batalleu onak, e, sozialista pe batalleu ona e(g)o san [...] Malatesta ta Durangoko komunista batalloe bat “batallón Malatesta”, órrek “Altos Homos” dinamitteute euki aben botateko, seekue, Sestaokue. Gure batalloe juen san guardiya itten, ostantzien, dinamittie sartu ta áidien botate dabe.

4.10. Bartzelonara neskame

- **Hizlaria(k)**: Belar Etxaniz, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto
- **Erref**: IUR-032/006
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:04:47. **Bukatu**: 00:05:52
- **Transkribatzailea**: Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Durangoko etxe batean neskame zegoela, Altzolako bat etorri zitzaion Bartzelonara joateko: lan bera eginda, soldata hobea zuen. Bere ahizpa ere berarekin joan zen. Gerrak irtengo zuela-eta, etxera bueltatu zen, eta gerrak irten zuen egunean bertan heldu zen; bere ahizpa, ordea, Bartzelonan gelditu zen gerrate osoan, Bartzelona hartu arte.

Transkripzioa

Gero Durangon eo nitxen kriyéra, esta? da ára etorri yaten neska bat, Alzolan eon sana da gero, ba, klaro! geiyau irabasiko otela ta, etorri yaten bera, baie Barsélonara jueteko, e!, orko etxien egon nitxen egun batzutan, baie Barselónara júteko ango alábias, da Barselónara jue nitxen kriyera, da gero áistie be eruen in naben beste lagun batenea, da gero ba, “resulta que” beti nere úsabak beti esate aben:

- ¡Va a salir una! ¡Va a salir una!- da gu(k) esatë götzen:

- ¡Qué va a salir! Pues que salga lo que salga.

Orko sasoién gu eskeñun gérrie ser dan jakíñ, baña es aben gure isan etortie ona, da erri txikitxo batera juen geñen úran, ba, beránieuan, da, klaro! baña ni prometiuta selan euki naben etortzeko amabost egunerako, etorri nitxen, da juxtu juxtu gérrie asi san egúnien allegau nitxen ona. Nire áistie Barselonan, ni emén, da, nire áistie iru lau urtien eon san an, gerra gustiye akabau arte, Barselóna artu arte.

5. Lanbideak

5.1. Neskame Bilbon eta Santanderren

- **Hizlaria(k):** Arroita Jauregi Gandiaga, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-025/004
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:09:17
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Gerra aurretik Bilbon eta Santanderren egon zen neskame. etxeko lan guztiak egiten zituen. 15 pezeta irabazten zituen hilean, sasoi hartan diru asko zen. 7 neba-arreba ziren. Beste arreba bat era bazuen Bilbon, baina bermut fabrikari. Ez ziren etxera etortzen, kartaz komunikatzen ziren etxekoekin.

Transkripzioa

kriya(a) eo nitzen ni Bilbon, bueno, bederatzi illebetien Bilbon, da iru illebeta Santanderren. Kriyera, da, etxeko bier gustiye, ba, kosíñeu, etxé arréglau, plántxie, ta ba ..., neguen eta arrátzaldetan ba, áixie síkeran ártzen urtete ixte uskuen. Amabost, e, peseta ilien irabasten, orduen amabos peséta ásko san, da ántxe iñ giñusan lau urte eró. Beste áista bat euki naban, urréngoko neuríe, bermú fabrikien Bilbon da ántxe biérrien, egúnien amar peséta irabaste a(ba)san árek, sueldu andiye, da gánera beste kántera bi bermú, len ardau gitxi isete san, da bermúta san “a tirar”, amabostien amabostien lau asunbrako garrafoitxue. Kriyara eo nitzen lekúen aberatza sien, “continuamente” afariye emoten geu ta... Bilboti be etxéra etorri bes, kártie, kártie, ba, ondo gabísela eró, orduen, e, jairi pe esan eoten, sortzi eguneko jairi pe esan egoten, oiñ abústue eta jaiyek ta Aste Santuen beste sortzi egun da eoten die, órduen, es, órduen kriyentzat es eusen, es segururik, es jairik, es sueldorik, esebes. Baña trípíe bebetze uskuen da, ba, unifórmie etxien ibiltteko, áixe emute uskuen da irábasten, íru o(g)érleko íllian, orduen galtza pare bat, e, peseta bi tta, sápatak saspí tta, bos ba ta, órre pe gitxi ixen dien gausa tie sápatak eta be. Mille péseta itteko, e, úrtiek in bier kriyera, mille peseta artzeko, e, ni neuri kosteu yate, ta erosi ne(b)asan eskóntzeko mántillie, guardasola da estaki ser, nire lau urteko su(e)lduok an juen sien.

5.2. 11 urterekin neskame

- **Hizlaria(k):** Belar Etxaniz, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Erref:** IUR-032/002
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:00:42. **Bukatu:** 00:01:26
- **Transkribatzailea:** Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** 11 urterekin neskame joan zen Portugaletera, esne-partitzera. Aita hil zitzaian eta bost seme-alaba izanik bizimodua atera beharra izan zuten.

Transkripzioa

Amaika urteas, ba, kriyera jun nitxen. Klaro! ba, an tripa(k) bete in bie sien da. Da umíok, danok, txikiyek, eta txikiyena(k) saspi illebete, da ama bakarrik an , sérue goiyen da lurre beien. Selako bisimódue eukingo geñun, ba? Ni Portugaletera, “tia” euki naban an da, aitta defúntuen anaiye euen an eskóndute, esné-partietan, tia be biximodue ataaten, gisona ildda be. Biximodue al da modúen atáaten ibili san. “Comedor de los pobres” eitte aben, játekue ipini, da gero “Montaña”ti ekarte utzien esnie, da a esnie, ba, gu partidu eitte geñun. Beste kriyera ba pe euki aben, da ni be bai tta.

5.3. Neskame lanak

- **Hizlaria(k)**: Belar Etxaniz, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto
- **Erref**: IUR-032/004
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:01:41. **Bukatu**: 00:02:15
- **Transkribatzailea**: Errazti Igartua, Alberto
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Portugaleten neskame zegoela, etxerik etxe aritzen zen esnea batzen. Bere izekok pobreentzako jatekoa preparatzen zuen.

Transkripzioa

Esnie pártietan egun gustiye emote naberen, amaika urteas, etxeik etxe, artu kantíntxuek, kalíen. Póbrien jatekue eitte abén “tiak”, ango, Portugaleteko póbrientzat. Señorittak etorte sien gero a probétan, gero pagau itte abien ero estaki ser itte abien. Da itte aben játekue, da an euki aban komedóra. Lapikuekin etorte sien da emote utzien játekue pobrieri, ta biyen bittenien...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Erromeriak (IUR-010/005)

Erromeria kontuak: plaza-mutilak, plaza-neskak, aurrekuak... Meza ostean lehenengo aurrekua egiteko bertako kofradiako mutilek zuten lehentasuna. Dantzara ateratzen zituzten neskak ere, bi neska, bertakoak izaten ziren. Auzokoek dantza egin eta gero gainerakoak egiten zuten. Erromerian danbolina egoten zen eta iluntzean filarmonika.

2. Maistra onak (IUR-010/008)

Maistra onak izan dituzte auzoko eskolan. Lehenengoa Jazinta izan zen eta ostean, durangar baten emaztea egon zen 44 urtez.

3. Gerraoste gogorra (IUR-014/014)

Aitari pinudiak kendu zizkieten. Itzelak pasa zirela dio. Karlista asko zeuden. Gerraostean ez zegoen ogirik eta errazionamenduan gauza gutxi hartzen

zuten. Euskaraz berba egitea ere galarazi zuten: "¡aquí hay que hablar en castellano!". Italiarrak ondo portatu zirela dio, haiek ere derrigortuta etorri ziren.

4. Lekeitioko frontetik Bilbo eta Otxandiora (IUR-014/020)

Lekeitioko frontean zeudela, Bilbora joateko deitu zieten, eta handik Otxandiora joan ziren. Otxandio aurreko egunetan bonbardatu zuten. Oletar asko ere bazeuden euren artean. Otxandiotik Oletara joan ziren eta handik Urkiolamendira. Batailoia berriro osatu behar izan zuten, bajak zirela eta, Lekeitiora joan aurretik.

5. Batailoian pasatako bizipenak (IUR-014/022)

Kostan zebiltzan hiru batailoi justu-justu libratu ziren. Beraien konpainiako azkenak Reinosaraino joan ziren, Picos de Europa ingurua zurituta zegoen. Erasoia Palentzia aldetik zetorren. Komunista batzuek Julian harrapatu zuten faxista zelakoan, eta justu-justu libratu ei zen heriotzatik; gertatutakoa kontatzen du.

6. Zelan egiten da ogia? (IUR-024/004)

Ogia zelan egiten den azaltzen du. Ogia aste osorako egiten zen, etxeko ogiak asko irauten du.

7. Hika, zuka eta berori (IUR-025/010)

Bere amak sekula inori ez zion hika berba egiten, beti zuka. Neba-arrebek ere ez zuten egiten, baina gerora bai. Abadeari berori egiten zitzaion, baina gaur egun ez. Lehen familiar errespetu gehiago egoten zela iruditzen zaio, gurasoek esandako egiten zen.

8. Lleidaraino joan ziren gobernuak ebakutatuta (IUR-038/002)

Santa Apoloniatik Ezkurdi osterara joan ziren bizitzera, eta handik Barrenkalera. Gero gerra hasi zen. Orduan, lehenengo jaunartzeko argazkiak ateratzera Bilbora joateko ohitura zegoen. Jose, argazkiak ateratzera joateko trenaren zain zegoela, Durangon bonbak jausten hasi ziren. Karrantzara egin zuten ihes, eta handik Ribadesellara eta Lleidako Nalec herrira.

9. Lleidatik Bartzelonara, eta handik Frantziara (IUR-038/003)

Lleidako Nalec herrian ama jarri zuten errefuxiatuen buru, eta Tàrregara joaten zen orgarekin elikagaiak ekartzera. Bertako oliba eta mahatsen uzta bukatzen zenean, errefuxiatuek hondarrak batzeko baimena zuten. Nalec-etik Bartzelonara bidali zituzten, eta handik "Stanmore" itsasontzian Frantziara eramanez.

10. Frantziatik etxera bueltan (IUR-038/004)

Frantzian eskolara joan zen Jose, eta frantsesez berba ondo egiten ikasi zuen. Aita Santoñako kartzelan preso zegoen; eta, libratu zutenean, familia ere Frantziatik etxera bueltatu zen. Barrenkaleko etxea suntsituta aurkitu zuten, eta amaren senide batzuen baserrira joan ziren bizitzera.

11. Eskolara bazkariarekin (IUR-038/005)

Hiru neba-arrebak Kukutzetik Orozketarako eskolara joaten ziren. Bazkaltzeko babarrun eta urdaia eramaten zuten eta maistrak egosten zizkieten. Cara al Sol egunero kantatzen zuten eskola hasi aurretik.

12. Barrenkalera bueltatu eta maristen eskolan ekin zion (IUR-038/007)

Larrinagatik ere Orozketako eskolara joaten ziren. Barrenkaleko etxea konpondu zutenean, bertara joan ziren bizitzera. Musika eta kanturako afizioa handia sortu zitzaion. 11 urterekin, maristen eskolan hasi eta 15 urtera arte bertan ikasi zuen, eta gero "Artes y Oficios" eskolan.

13. Musika eta kantuaren munduan murgilduta (IUR-038/008)

Ostegun arratsaldetan "La Villa" eskola publikora joaten zen, Millan Elgea bandako zuzendariarekin musika ikastera. Andra Mariko elizan tiple izan zen, eta geroago Santa Anako koroan 1. tenore, beste 15 1. tenoreekin, 47 gizoneko koroan. Gero Orfeoian sartu eta 30 urtetan kantatu zuen bertan. Erandioko zortzikote txapelketara ere joan zen.

14. Maristetan hasi zen Jose kantuan (IUR-038/009)

Josek 70 urte daramatza kantuan. Maristetan ikasten zegoela, maiatzeko arrosarioen koroan kantatu zuen Josek. Ondo abesteko, ahots ona baino belarri ona izatea garrantzitsuagoa dela dio.

15. 7 urtetatik 18ra arte eskola ezberdinetan (IUR-038/010)

Gerra aurretik ospitaleko "San Vicente de Paúl" eskolara joan zen bi urtetan. Hiru urtez ebakuatuta bueltaka ibili ondoren, 10 urterekin bueltatu zen Durangora. Urtebetez Orozketako eskolara joan eta gero hasi zen maristetan. 15 urtetatik 18ra "Escuela de Artes y Oficios"en ikasi zuen. Elorrio, Zaldibar, Berriz, Mañaria, Izurtza, Garai eta Eubako ikaskideekin ikasi zuen maristetan.

16. Diziplina zorrotza maristetan (IUR-038/011)

Maristetako irakasle guztiak lekaideak ziren, eta abitua jantzita irakasten zuten. Behin, nahi gabe, eskolako zuzendaria busti zuen komunak garbitzeko presiozko tutu malguarekin. Diziplina zorrotza zegoen maristetan.

17. Lehengo meza nagusiak (IUR-038/012)

Orduko meza nagusiak hiru abaderen (parrokia eta apaiz lagunkide bi) artean ematen zituzten. Meza, kantuak barne, latinez izaten zen, eta sermoia gazteleraz.

18. Eskolako gaiztakeriak (IUR-038/014)

Mutikotako gaiztakerietako bat eskolako mahaiko tintontzietan kilkerrak sartzea izaten zen. Arropa artean, igelak sartzea izaten zen beste bat.

19. Soldadutzako kontuak (IUR-038/016)

Soldadutza Sondikan egin zuen. Oheratzeko orduan, burko azalak hartu eta inguruan zeuden sagarrak eta beste fruitu batzuk harrapatzera irteten ziren. Sarritan zigortu izan zuten ilea ondo-ondotik moztuta.

20. Eskolako futbol txapelketak (IUR-038/018)

Ermua, Galdakao eta Durangoko maristen eskola arteko futbol-txapelketak egiten zituzten. Jesuiten Udako Txapelketetan ere jokatzeko zuten Josek.

21. Herriko futbol-taldeak (IUR-038/020)

Arginzonizen txaletaren ondoan futbol-zelai txiki bat egin zuten. San Roke, Rayo Arginzoniz, Beti Galdu, Santa Ana, Magadalena... futbol-taldeen arteko txapelketak antolatzen ziren bertan. Jose Maria Dañobeitia abadea izaten zen arbitroa. Kikutze ostean abarkak jantzita jokatzeko zuten futboleant.

22. Herriko futbolari ezagunak (IUR-038/021)

Joserekin mutikotan futboleant jokatuak, gero Athleticen (Eneko Garate eta Fernando Elgea) edo Realean (Sabino Uranga) jokatu zuten. Gorosarri "Pecho roca" Burgosera joan zen, eta Emiliano Zuazo atezaina, berriz, Erandiora.

23. Lantegietako gerenteak maristen eskolan (IUR-038/022)

Maristetako ahozko azterketak lantegi guztietako gerenteak egoten ziren ikusten. "Ortiz el Viejo" lantegira deitu zioten Joseri lanera. Karmelo Cedrunek Athleticen jokatu zuen lehen partida gogoratzen du, Vigoko Celtaren aurka izan zena.

24. Karmelo Cedrun Ahtleticeko atezaina (IUR-038/024)

Karmelo Cedrunek abizena Sedrun zuen, baina soldadutzan aldatu egin zioten. Abizenez Afrikara tokatu zitzaion, baina Athleticen atezaina izanda, ezin zuen hain urruti joan. Garellanon (Bilbo) egin zuen soldadutza.

25. Ezkurdiko frontoia munduko handiena (IUR-038/027)

Eskupilotan ere asko jokatuakoa da Jose, esparatrapu gutxiago erabiltzen zen garaietan. Ezkurdiko frontoi publikoa munduko frontoirik handiena omen zen orduan. 18-20 koadro omen zituen frontoi hark. Jesuiten pilotalekuan ere jokatzeko zuten.

26. Gaurko pilotak biziagoak (IUR-038/028)

Gaur eguneko pilotak lehengoak baino biziagoak dira. Edozeinek bidaltzen du pilota errebotera. Botea ere handiagoa dute pilota hauek.

27. Gaurko baloiak hobekak lehengoak baino (IUR-038/029)

Hondatutako pilotak eta baloiak birjosten Jabier "Pecho roca" oso ona omen zen. Baloiak ere gaur egunekoak baino txarragoak ziren. Lokatza itsatsi egiten zitzaion, eta jolasteko astundu egiten ziren.

28. Zesta jokoan diru asko mugitzen zen (IUR-038/030)

1942. urtean maristen eskolako ikasleen arteko binakako pilota-txapelketa irabazi zuen. Zesta jokalarionak egon ziren garaian diru asko jokatzeko zen frontoitan. Inguruko herrietatik jende asko etortzen zen Durangoko frontoira.

29. Zestariak Amerikara (IUR-038/032)

Hainbat durangar zesta jokalarion Amerikara joan ziren jokatzera. Indonesiako Yakartara ere joan zen bat. Jokalarion izenak gogoratzen ditu. Haietako batzuk, Ameriketatik bueltatu zirenean negozioren bat jarri zuten.

30. Erraketista bakarra Durangon (IUR-038/035)

Emakumeak frontoira joaten omen ziren. Abadeak ere bai, Josek dioenez. Albaitariaren alaba bat izan zen Durangoko erraketista emakume bakarra. Kataluniara ezkondu zen, eta tenisean jokatu zuen bertan.

31. Txirrindulari ospetsuak Durangon (IUR-038/036)

Txirrindulari ospetsuak ere eman ditu Durangaldeak. Espainiako txapeldun izandako hainbat durangarren izenak ekartzen ditu gogora Josek.

32. Bizikleta-dendak (IUR-038/039)

Agirrezabal eta Apata anaien dendetan saltzen zituzten bizikletak. Agirrezabal dendaren ugazaba, Zipri, txirrindulari profesionala izandakoa zen, eta esprinter oso ona izan omen zen. Errepidea utzi eta azken urteetan pista lasterketetan jardun zuen. Bizikletak asko aldatu dira Joseren garaitik hona.

33. Lasterketa barruan kontrol gutxi (IUR-038/040)

Gaur eguneko txirrindulariak, Joseren garaian erabiltzen ziren maillotak janzten lotsatu egiten omen dira. Materiala asko aldatu da. Lasterketa barruan kontrol handirik ez zen izaten orduan.

34. Loroñon garaian ere bazen dopina (IUR-038/041)

Gogoan du Josek lurretako lasterketa batean, dopinaren ondorioz, Loroño txirrindularia ahotik bitsa zeriola helmugaratzen. Tortillan nahastuta hartzen zituzten dopin pilulak. Bahamontes eta Loroñoren zaleen artean eztabaida sutuak izaten ziren.

35. Askaria apustu (IUR-038/043)

Zaleen artean apustuak ere egiten ziren. 'Baietz kendu, halako etapan, hainbeste miñutu...' Dirutan baino, askaritan izaten ziren apustuok. Garai hartan atzerriko lasterketetara txirrindulari talde estatalak joaten ziren, ez komertzialak. Espainiak, esate baterako, 10 laguneko taldea bidaltzen zuen Frantziako Tourrera. Urte batean Loroño ez zen joan taldean, Bahamontesen laguntzaile hutsa izatea ez zuelako nahi.

36. Lehengo txirrindulari taldeak (IUR-038/044)

Gamma, "Cafés El Abra", Kas, Fagor... ziren orduko txirrindulari-talde batzuk. Kas eta Fagorren arteko borrokak azaltzen ditu.

37. "Ciclista Duranguesa", Kas eta Fagor (IUR-038/045)

"Ciclista Duranguesa" elkarteak aspaldi sortu zela dio Josek. Oraingo aldean baliabide eta laguntasun gutxiago zegoen garaian. Fagor taldean gehienak giputzak ziren, Kas-ekoak bizkaitarrak ziren bezala. Hainbat txirrindulariren izenak gogoratzen ditu, talde bietakoak.

38. Boxeoan ametsetan (IUR-038/047)

Boxeoa ez du gustuko; baina behin, ametsetan, ispiluaren aurka boxeoa, eskua ebaki zuen. Aita ehiztaria zuen, eta gerra denboran eskopeta Guardia Zibilari ez emateagatik, ortuan zuloa egin eta gorde zuen.

39. Nobio kontuak (IUR-038/050)

Ostegun eta domeketan irteten ziren elkarrekin nobiotan. Neska etxera lagundu eta atarian, etxeko atearen beste aldetik, neskaren amaren deiak entzuten zituen. Garai hartan lanetik musika entsegutara joaten zen Jose ia egunero.

40. Iurreta Durangotik banandu zen (IUR-038/051)

Iurretan jaio zen Jose, Iurreta Durangon zegoen garaian.

41. Euskara ezberdinak (IUR-038/052)

Inguruko herrietako euskara ezberdinak errez antzematen ditu Josek. Arratiarrak oso ezberdin egiten omen dute.

42. Durango erdalduna (IUR-038/053)

Eibartarrak oso euskara traketsean mintzatzen zirela dio Josek, baina euskara gehiago erabiltzen zutela durangarrek baino. Durangon erdara hizkuntza nagusia omen zen.

43. Alpino Tabira mendizale elkarteko kide (IUR-038/055)

Alpino Tabira mendizaleko elkarteko bazkide-txartela erakusten du Josek. Pilarika eguneko "Marcha Nacional de Veteranos"en 20 urtez falta barik hartu du parte Josek. Ibilaldiok Espainiako zein lekutan izan diren azaltzen du.

44. Mendi zaletasuna (IUR-038/056)

Joseren semeak maristekin mendi irteera asko egin zituen, eta horren ondorioz Jose bera ere mendira zaletu zen. Gaztetan etxerako ira ekartzen zuen basotik, idi pareta eta gurdiaekin.

45. Alpino Tabira mendizale elkartearen lanak (IUR-038/057)

Ira ganaduen azpitarako erabiltzen zuten. Azpitatik irtendako satsa sorotara eramaten zuten. Mugarra mendi gailurreko buzoiak ehun urtetik gora omen ditu. Buzoi hau apurtu zutenean Alpino Tabira mendizale elkarteak konpondu zuten, eta baita Mugarako iturria ere.

46. Emakume mendizaleak (IUR-038/058)

Alpino Tabira mendizale elkartean emakumeak ere hasieratik bazkidetu ziren. Mendira joaten zirenean abesten zituzten kantuak gogoratzen ditu.

47. Etxean beti euskaraz (IUR-040/003)

Etxean beti euskaraz. Senide batek ez daki euskaraz, umetatik nagusitu arte kolegioan egon zelako eta harekin gaztelaniaz egiten dute. Azkenaldian gehiago egiten du gaztelaniaz.

48. Pepe `Tanbor´en etxean jaioa (IUR-040/004)

"Tanborrena" esaten zioten etxean jaio zen. Pepe `Tanbor´ lurretako Udaleko oharrak batera eta bestera eramaten zituena omen zen eta oharrak jakinarazteko danborra jotzen zuen. Hortik datorkio izena etxeari. Pepe `Tanbor´en seme-alabak ezagutu zituen. Alaba bere amaren laguna zen. Txoko bat zuten etxean, taberna antzekoa. Han jaio zen bera eta lurretako San Migel parrokian bataiatu zuten.

49. Arriandin hazi (IUR-040/005)

Arriandi edo "Pilastra"n hazi zen. Izenaren jatorria. Aita bizi zen han amarekin eta anaiarekin. Anaiari emaztea erditzean hil zitzaion eta bera ere umeak 7 urte zituela hil zen. Hori dela eta, haren semea beraiekin hazi zen, neba moduan. Lehengusuak gaztelaniaz egiten zion eta, berak ez zekienez eta lotsatia zenez, buruarekin erantzuten zion.

50. Arriandiko eskolako maistrak (IUR-040/006)

Eskolan maistra gazte bat izan zuen hasieran. Zakar samarra zen eta belauniko edukitzen zuen eskola-ordu guztian. Ez zuen ezer ikasi harekin. Eskolakide batek irakatsi zizkion zenbait gauza bere borondatez. Gerra sasoiari Adriana izeneko irakasle bat etorri zitzaion Ermutik. Aita nagusiarekin bizi zen bakarrik. Ez zuen denbora asko egin, hilabete gutxi barru hemorragia batzuen ondorioz hil egin zen eta. Durangon lurperatu zuten.

51. Gerra sasoiaren bizipenak: familia sakabantuta, Arriandiko maistraren eskutitza... (IUR-040/007)

Gerra aurretik Zamudioko maistra euskaldun bat izan zuten Arriandiko eskolan. Gerra sasoiari Bilbon egon zen kartzelan. Handik eskutitza bidali zuen, berari zuzenduta. Arriandiko amabirjinari kapa bat egiteko dirua batzeko eskatu zion. Kartzelan josi zion kapa eta prozesioa egin zuten Amabirjinari kapa jartzeko. Etxeko guztiak sakabantuta egon ziren, baina maistrak nonbaitetik jakin zuen beraiek etxean zeudela. Ama, aizta bi gazteagoak eta neba bat zeuden etxean, baina 17 urteko neba "kamillero" moduan eraman zuten. Bi tropen erdian zeuden eta gaez Durango aldera eramaten zituzten. Jateko eskasia izan zuten. Horrela pasa zuten 1937 urtea. Aitaren berririk ez zuten izan urtebetean. Aita izebaren etxera joan zen, baina baserria bonba batek txikitu zuen izeba bertan zela. Anaia nagusia Francoren tropekin ibili zen, soldadutza amaitzean harrapatu zutelako, eta bi anaia gazteagoak ez zuten boluntario gisa joan nahi izan, anaiaren kontra ez aritzeko. Bietako bat preso hartu zuten eta Bilbon egon zen fusilatze puntuan, Arriandiko maistraren antzera. Durangoko medikuari esker salbatu ziren.

52. Neba kartzelatik "Trabajadoreetara", eta gero erreketek (IUR-040/009)

Bilbon kartzelan egon zen neba "Trabajadoreetara" eraman zuten gero. Han egoera txarrean zeuden eta erreketek gisa sartu zen bere borondatez. Horri esker etxera joan ahal izan zen bisitan. Erreketean jantzia. Lau nebak ibili ziren gerran eta laurak bizirik atera ziren, nahiz eta anaia nagusia elbarritu egin zen.

53. Senide guztiak bizirik gerratetik (IUR-040/011)

Bere familian denak bizirik atera ziren gerra sasoiari, nahiz eta lau nebak ibili ziren frontean. Alboko etxeetan mutil bana hil ziren, gerraren ondorioz. Ama lo

zegoela ere errezatzen egoten omen zen. Ama bakarrik moldatzen zen etxeko lanak egiteko. Ortuko lanak gustatzen zitzaizkion.

54. Arriandiko baserria: etxebizitzak, lurrak... (IUR-040/013)

Arriandiko etxea baserri-etxe handi bat zen, bi bizitzakoa. Beraien alderdira bi etxebizitza zituen. Lurra nahikoa zuten denentzat. Jende asko bizi arren, konpontzen ziren. Ortua etxe ondoan zuten eta beste aldean arto eta babarrun-sailak. Beraiekin hazi zen lehengusua igeltseroa zenez, depositua egin zuen eta ura jarri zuten ortura.

55. Amama Berriatura eta ama Zuhatzura, ortuariak saltzera (IUR-040/014)

Amama Berriatura joaten zen ortuariak saltzera, astoa eta karroarekin. Ama berriz, Zuhatzura (Galdakao), geltoki ondora. Bera ere sarri eramaten zuen, laguntzeko. Arriandin garraioarekin izaten zuten arazoa. Trenera joateko, Eubara, lau kilometroan oinez eraman behar gauzak. Amamak erabiltzen zuen karroa konpondu eta mando bat erosi zuten. Mandoarekin izan zituzten komeriak; azkenean Abadiñoako ferian saldu zuten. Gero, bera ibili behar izaten zen asto karroari tiraka.

56. Gerra sasoiko elikagai eza, beldurra eta debekuak (IUR-040/015)

Ez daki gaztetan nola zuen hainbeste indar, gerra sasoiari ganorazko otordurik ia ez zuten egiten eta. Amak arroza lortzen zuen; Txinatik ekartzen omen zuten. Porruak izaten zituzten ortuan, baina sasiarekin tapatuta, bestela bonbak botako zizkietelako. Arroza porruarekin jaten zuten. Ganadua gauez ateratzen zuten kanpora, zerbait jan zezaten. Ez zuten ez belarrik eta ez pentsurik. Bi urtean ez zieten utzi ezer landatzen.

57. Gerra sasoiari "Historia sagrada" irakurri zuten (IUR-040/017)

Nebak gerratean ibili zirenean, haien eskolako liburuak aurkitu zituen: "Historia Sagrada", bi liburuki. Ordurako bazekien irakurtzen eta oso-osorik irakurri zituen. Gaztelan hitz egiten ez zekien artean eta buruarekin erantzuten zuen bai ala ez.

58. Gerraostean krisia; zakuekin egindako arropak (IUR-040/020)

Ezkondutzean, gauza guztiak gurasoen etxean utzi zituen, bai bere eskolako liburuak eta baita arropak ere, ardi-zain egiteko ez zituela behar eta. Bere trajearekin lobei jaunartzerako marinel-jantziak egin zituzten. Gerraostean krisi handia egon zen. Zakuekin egiten zituzten arropak.

59. Gerra sasoiko bizipenak: aita eraman, etxeak hustu, hildakoak... (IUR-040/021)

Gerratean aita pistola paparrean ipinita eraman zuen etxetik miliziano batek. Txerria eta bi ohe utzi zituen etxean, ezin zituelako berarekin eraman, baina beste traste guztiak eraman zituen. Soinean zituzten arropekin geratu ziren. Etxe inguruko arboladi batean mutil bat hilda aurkitu zuten bere osabek. Bera hura ikustearren atera zen eta etxe guztietako ateak zabalik zeudela ikusi zuen: jendeak alde egin zuen, dena bertan lagata. Gauean etxeetako traste

guztiak eraman zituzten; beraiei txerria ere horrelaxe ostu zieten. Milizianoak izango zirela uste du. Francoren tropak Durango alderago zeuden. Milizianoek tankea zutela kontatzen du.

60. Gerra sasoiko bizipenak: jateko eta arroparik ez, etxeak hutsik, beldurra... (IUR-040/025)

Arriandi auzoan jendeak alde egin zuen etxeetatik, dena bertan lagata. Amak Oromiño auzora bidali zuen, senideengana, baina han ere etxea hutsik aurkitu zuen. Beldurra pasa zuen bidean. Etxe handi baten ondoko gerezi-arbolan tripa eta poltsikoak bete zituen gereziz. Etxea hutsik zegoen. Norena zen eta barrutik nolakoa zen azaltzen du. Bidean hutsik aurkitu zituen etxe guztiak. Etxe bateko arropak hartu zituzten, ez zeukaten ezer eta. Jendea etxeetara itzuli zenean, auzoko lapurrak zirela esaten zuten. Beraiei txerria eta bizikleta ostu zizkieten. Bi bandoen erdian zeudenez, gaua pasatzera Mallabienara joaten ziren. Teila-lantegia zegoen han. Umeek oilo-tokian egiten zuten lo eta nagusien kanpoan.

61. Auzokoen arteko tirabirak, gerraren eraginez (IUR-040/027)

Gerran ihesi ibili ostean jendea etxeetara itzuli zenean, lapur fama zuten auzoan, etxe batetik arropak hartu zituztelako. Arropak bueltan eraman zituzten, baina goizean, ilunpean. Lagun baten estutxearekin gertatutakoa. 12 urte zituen berak orduan.

62. Auzoko lagun bati mutil batek egindako eraso (IUR-040/028)

Behin soldadutzatik baimenarekin etorritako mutil batek sexu eraso egin zion auzoko bere lagun bati, neskaren familiaren tabernan. Gizonezko talde batek bidea oztopatu zion Frantziskari eta ozta-ozta abisatu ahal izan zion neskaren aitari. Mutil hura frontean hil omen zen gero. Halakoak beti gertatu izan direla dio.

63. Durangoko eta Gernikako bonbardaketak; egunkariak gorde zituen (IUR-040/030)

Gernikako eta Durangoko bonbardaketak gogorrak izan ziren. Orduko egunkariak gorde egin zituen koltxoiaren artile artean eta handik urte askora aurkitu zituzten. Gernikako bonbardaketaren inguruko oroitzapenak. Hegazkinak hirunaka. Erreka izkinan zuten babeslekua.

64. Aita arrantzan trebea; etxe aurrean arraintzat putzua (IUR-040/031)

Aita arrantzalea zen eta butroia izaten zuen errekan, arrainak harrapatzeko. Etxe aurrean "peskaderixe" zutela dio, arraintzako putzua. Behin arrankari handi bat harrapatu zuten eta etxe aurreko uretara bota zuten. Jaio ziren arrain txikiek hodietatik ihes egin zieten.

65. Nebari arrain-hezurra trabatu zitzaion (IUR-040/032)

Aitak arrainak izaten zituen etxe aurreko putzuan. Gurasoek gerra sasoian arraina jango zutela uste du. Beraiei ez zieten ematen arrainik, behin neba zaharragoari barboaren hezurra kateatu zitzaiolako eztarrian. Durangora eraman zuten anaia Serrano medikuarengana. Ordurako hezurra ez zeukan eztarrian, baina, zauria zuenez, Bilboko ospitalera eraman zuten. Zauria

sendatu eta, bide batez, anginak kendu zizkioten. Gerra aurretik izan zen hori. Beraiek porruak eta arroza jaten zuten gerra sasoian. Babarik, ogirik eta talorik ez zuten izaten. 1937an ama eta biak egon ziren bi ume txikiekin.

66. Gernikako bonbardaketaren inguruko bizipenak (IUR-040/033)

1937ko apirilean bonbardatu zuten Gernika. Arratsaldean izan zen bonbardaketa eta izugarrizko triskantza egin zuten. Aita eta biak babeslekura joan ziren eta ama etxean geratu zen ume txikiekin. Hegazkinak ikusi zituzten eta baita bonbek ateratako txinpartak ere. Hegazkinak egiten zuten bidea; Otxandiorantz aldentzen ziren. Hegazkin batzuk beraiengana zetozela ikusita, korrika ihes egin zuten. Aitari bonba bota zioten, baina ez zuten harrapatu. Orduko bizipenak.

67. Kaza hegazkinak tirokatu zuenekoa (IUR-040/034)

Gerra sasoian Francoren tropak Otxandion egon ziren. Bera kanpoan asko ibiltzen zen eta ikusten zuen inguru hartatik goratzen zirela kaza hegazkinak. Iturburu inguruan "willys" jeep bat agertu zen soldaduekin. Soldaduak ez ziren konturatu hegazkina zetorrela eta berak abisatu egin zien. Hegazkinak jeep-ekoak bonbardatu zituen eta gero buelta hartu eta Frantziska erasotzera joan zen. Ez zion eman etxean sartzeko astirik. Oso baxu joan zen hegazkina; bala-hotsa belarri ondoan sentitu zuen.

68. Inguruko mutil bat bonba botata hil zuten, soroan zebilela (IUR-040/035)

Kazako hegazkinak metrailatu egiten zuten eta hegazkin handiek bonbak bota. Aitari bonba bota zioten etxe inguruan, baina ez zuten jo. Inguruko mutil bati, berriz, idiekin soroan zebilela bota zioten bonba eta bete-bete harrapatu zuen.

69. Durangoko bonbardaketak; hegazkinetik botatako eskuorriak (IUR-040/036)

Durangoko bonbardaketak. Lehenengoa 1936an izan zen; Ezkurdi ondoko frontoia bonbardatu zuten. Bonba txikiak bota zituzten ordukoan. Geroko bonbardaketetan, berriz, handiagoak. Gerra hasi eta berehala kazako hegazkin batek eskuorri ugari bota zituen. Frantziskak paper ugari batu zituen. Etxera joan zenean, aitak sutara bota zituen. Hauxe jartzen zuten: "A los niños y a los ancianos se les perdonará, pero con los demás se hará justicia".

70. Gerra hasieran soldaduekin gertatutakoa (IUR-040/037)

Hiru lagun joaten ziren elkarrekin eskolara. Gerra hasi eta berehala gertatutakoa kontatzen du. Errepide ertzean zeudela, "willys" jeep bat pasa zen soldaduekin. Soldaduek eskua jaso zutenean, Frantziskak eskumako esku jaso zuen eta fusilarekin apuntatu zuten. Berehala konturatu ziren umeak zirela. Berak artean ez zekien zer esan nahi zuen horrek.

71. Francok Durango bonbardatu ostean, kartzelan zeudenak fusilatu zituzten (IUR-040/038)

Francok izugarritzko triskantzak egin zituen, baina bi aldeetan egin zirela gauza itsusiak dio. Iurretako maisua, parrokiari doktrina ematen zuena, kartzelan sartu zuten. Francok 1936an Durango bonbardatu zuenean, kartzelan zeuden 21 pertsona fusilatu zituzten, tartean Iurretako maisua, jatorriz Burgoskoa zena. Iurretako eliza munizioa gordetzeko erabili zuten geroago.

72. Gerraren inguruko kantapaperak (IUR-041/003)

Gizon bat kantapaperak saltzen ibiltzen zen etxerik etxe. Gerraren inguruko kantak izaten ziren asko.

73. Francoren itzulera kontatzen duen kanta (IUR-041/005)

Franco Afrikako gerratik Madrilera etorri zenekoa kontatzen duen kanta gogoratzen du Frantziskak: "a las tres de la mañana, en Madrid se present´..."

74. Gerra sasoiko aldizkariak (IUR-041/006)

Gerra sasoiari 'Boletín Oficial' izeneko egunkariak edukitzen zituzten auzokoek. Polizien lagun ziren albokoak eta haiek ekartzen zizkieten egunkariak. Sasoi hartan, poliziak motorrean ibiltzen ziren, motor bizkorretan. La Gaceta del Norte eta euskarazko egunkari bat ere irakurtzen zuten gerra sasoiari.

75. Etxeko ugazabari errenta (IUR-041/008)

Etxeko ugazabari urtean behin eman behar izaten zioten baba eta artoa, errenta lez. Inoiz txahal batekin ere ordaindu izan dute errenta. Iurretan zeukan familia eta bertara eramaten zioten eskatzen zuena. Arriandiko taberna ere euren ugazaba berarena izan da.

76. Iturrira arropa garbitzera (IUR-041/010)

Arropak garbitzera iturrira joaten ziren, bertan harri-losak zeuden eta. Orain askoz ur gutxiago dago errekan. Sua aurrerapen handia izan zen, baina garbigailua modukorik ez dago Frantziskarentzat. Lehen lixiba askoz gehiago erabili behar izaten zuten, zikina kentzeko.

77. Fabrikan zauritu eta Legorburu medikuarengana (IUR-042/002)

Fabrikan ibili zen lanean. Behin hatzean min hartu zuenean Legorburu medikuarengana bidali zuten. Bera medikuaren etxean neskame lanean jarduna zen gerra zibil amaieran. Medikuak ultzera bat zuen osabari esan zion ezin ziola ebakuntzarik egin eta militarrengana joateko. Osabak nahiago izan zuen hil, militarren esku jarri baino.

78. Lehengusua gerratean panteoiak egiten (IUR-042/004)

Lehengusu bati aitak marmolarekin panteoiak egiten irakatsi zion. Soldadu egon zenean, halako lanetan ipini zuten eta ez zuten frontera eraman.

79. Bere neba eta Serrano medikua nola libratu ziren fusilatzetik (IUR-042/006)

Durangoko Legorburu medikuaren etxean egon zen neskame. Gerra garaian Durangon geratu zen mediku bakarra zen. Amaren medikua Serrano zen eta hark lagunduta jaio omen ziren zazpi neba-arrebak. Serrano medikua bere nebarekin batera harrapatu zuten gerratean eta fusilatzeko puntuak egon ziren. Serrano libre utzi zuten eta neba lan-batailoietara bidali zuten. Azkenean, erreketetan sartu zen. Gerra sasoiaren jatekorik ez zuten eta ejertzituak ematen ziren jatekoa.

80. Legorburu medikuarenean neskame (IUR-042/007)

Legorburu medikuak bere osaba artatu zuen eta haren etxera joan zen neskame eta ume-zain. Gerra sasoiaren ez zuten eskolarik, baina anaien eskolako liburuak (Historia Sagrada) irakurri zituen. Gaztelan ez zuten hitzik egiten, baina dena ulertzen zuen. Etxeko nagusiek lasai hitz egiten zuten bere aurrean, gaztelan ez zuela ulertzen pentsatuta. Gustura egon zen haiekin.

81. Edozein lanetan moldatzekoa izan da (IUR-042/008)

Edozein lanetan moldatzekoa izan da beti. 14 urterako arta-jorran egiten zuen pertsona nagusi baten antzera. Auzokoei ere laguntzen ziren Arriandin. Arriandiko auzokoen familia.

82. 17 urterekin Amig lantegian hasi zen lanean (IUR-042/011)

17 urterekin Amilibia eta De la Iglesiaren lantegian (AMIG) hasi zen lanean. Amilibia eibartarra zen, baserritarra, gaztetan morroi ibilia; De la Iglesia, berriz, "kaballerue". Fin lan eginda dirutza irabazi zutela dio. Gerriko edo erlojuen "hebillak" egiten zituzten. Lau pezeta irabazten zituen hasieran. Hori bai, pezetak zilarrezkoak. Sei urte egin zituen lantegian eta irten zenean askoz gehiago irabazten zuen.

83. Emakumezko eta gizonezkoen lanak Amig lantegian (IUR-042/014)

"Hebillak" egiteko prozesua Amig lantegian. Estanpazioan emakumezkoak aritzen ziren eta leunketan gizonezkoak. Marrazkilaria ere gizonezkoa. Trokelak. Lantegiko gizon nagusi bat berari begira egoten zen sarri, alabaren antza hartzen ziolako. Arduradunak.

84. Frankismoko debekuak eta zigorrak (IUR-042/015)

Euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen frankismo sasoiaren. Zapata lantegian lan egiten zuen 17 urteko mutil bat Cadizera eraman zuten kartzelara "Gora Euskadi" esatearren. "Trabajadoreetan" lanean zebilela hil zen eta ez zen etxera itzuli.

85. Lantegiko makinaren arriskuak (IUR-042/017)

Lantegian lanean zebilela, behin baino gehiagotan harrapatu zizkion hatzak makinak. Legorburu medikuak azazkala kendu behar izan zion. Makinaren inguruko azalpenak. Neska bati hiru hatz harrapatu zizkion; kalte-ordaina jaso eta ez zen gehiago itzuli.

86. Amig lantegian, "hebilla" egiten (IUR-042/020)

Amig lantegian makina desberdin batean jarri zuten, hatzean min hartu ostean. Azkar zihoan makina. Berak ere azkar lan egiteko joera zuen eta arduradunak errieta egiten zion. Makina berotzen zenean, deskantsua hartzen zuen. Segundoko 50-60 "hebilla" ateratzen zituen makinak. Bederatzi orduz aritzen zen lanean. Garai batean "hebilla" asko egiten zituzten, soldaduen gerrikoentzako egiten zituzten eta. Lantegia plazatik hurbil zegoen. Lantegiak herritik kanpora atera zituztenean, eraikina bota egin zuten.

87. Senarrak nahiago izan zuen artzain lana fabrika baino (IUR-042/023)

Sei urte egin zituen fabrikan beharrean. Senargaia ere bertan sartu nahi izan zuen, baina hark ez zuen nahi. Ardi-zain ibili nahi zuela eta artaldea erosi zuen. Frantziskak ere lana utzi behar izan zuen hari laguntzeko. Senarra osabak hazi zuen, ama berriz haurdun geratu zelako eta artean haurtxoa zela garagardoa ematen omen zioten.

88. Senarraren familia abereekin ohitutakoa (IUR-042/024)

Senarra Montorren jaioa zen, baina gero Zornotzako mendialdera joan ziren. Ama Aramaioko baserri batekoa zen eta, abereekin ohituta zeudenez, horregatik joan ziren berriz mendi aldera bizitzera.

89. Ahuntzak nola zaintzen zituen (IUR-042/026)

Artaldea bi zatitan banatuta izaten zuten, bi kortatan. Bost ahuntz ere bazituzten. Bakoitzak bere aska izaten zuen. Abereen zaintza. Etxetik deiadarra egin eta Gaintzorrotzetik zintzo etortzen zitzaizkion ahuntzak etxera.

90. Etxeko animaliak berak bakarrik jagon (IUR-043/001)

Gizonak, Gabonetan aumak edukitzeko, Santa Luziara botatzen zituen ahuntz bi. Ahuntz gutxi eduki izan dute, baina beti baten bat. Ardiak, osterak, hainbat eduki dituzte. Lehenengo semea ibiltzen zen ardi-zain, baina gero Frantziska bera ibili izan da. Behiak, untxiak eta oiloak ere berak bakarrik hazi izan ditu.

91. Kortako beharrak eta etxeakoak bere bizkar (IUR-043/002)

Gizonak ardiak kanpora ateratzen zituen, Frantziskak jatekoa ipini, askak garbitu eta azpiak egin artean. Hori baino ez zen izaten gizonaren beharra. Kortako beharrak egiteaz gain, etxeako bazkaria ere prestatzen zuen Frantziskak.

92. Udan Belatxikietako etxe batera ganaduekin (IUR-043/004)

Eubara ezkondu ziren, Belaustegira. Errentadore egon ziren etxe horretan. Udan Belatxikieta inguruan, haitzen kontra, dagoen etxe batera joaten ziren ganaduekin.

93. Nebari sardexka sartu izterrean (IUR-043/006)

Ama bazkaltzeko artozko taloak egiten zegoen eta aita kortarako joan-etorrian zegoen. Halako batean, neba tentatzen hasi zitzaion Frantziskari eta berak sardexka sartu zion izterrean.

94. Umeak etxean emaginaren laguntzaz (IUR-043/007)

Amak askotan eman zizkion ipurdikoak Frantziskari. Frantziskak etxean eduki izan ditu umeak, bi izan ezik. Behean bizi zen emaginak lagundu izan dio erditzeetan eta baita medikuak ere.

95. Esne kondentsatua umeei (IUR-043/009)

Bikoitzei bederatzi hilerekin kendu nahi izan zien bularra eta esnea ematen hasi. Umeek ez zuten ondo ametitzen esne hori eta beheranzkoa egiten zitzaien. Azkenean, esne kondentsatua ematen hasi zitzaien eta ondo hartzen zuten.

96. Umeei baba-zopak, purea, ahia eta morokila (IUR-043/010)

Orduan, bederatzi hilekin hasten zen Frantziska umei baben salda zopekin ematen. Ordura arte titia baino ez zuten hartzen. Hala ere, urte bi eta erdi eduki arte titia gainontzeko jatekoekin txandakatzen zuen. Umeei pureak, ahia esnearekin eta morokila ematen zien.

97. Ume arropak (IUR-043/012)

Ume-izarak erabiltzen zituzten umeak batzeko. Gerrian batzen ziren eta faxarekin lotu. Gainean mantarra jartzen zieten txizak-eta ez irteteko. Goitik alkandora eta jertsea jartzen zieten. Oinez hasten zirenean praktaxoak jartzen zizkieten. Seme nagusiak hamar hilabeterako oinez ikasi zuen eta baita berbetan ere.

98. Medikua ETAKoen eta poliziaren arteko tiroketan hil (IUR-043/014)

ETAKo batzuk zauritu zituzten eta medikua, Don Antonio Iturbe, eurak osatzera joan zen. Poliziak jarraitu egin zuen eta bertan suertatu zen tiroketan hil zuten medikua.

99. Azkenengo haurdunaldian hilekoa jaitsi (IUR-043/015)

Haurdunaldietan hagnetako mina eduki izan du Frantziskak. Azkenengo haurdunaldian, ez zuen uste haurdun zegoenik, hilekoa zuen eta. Hala ere, hilekoa moztu egin zitzaion eta hotzagatik izango zela pentsatu zuen. Medikua haurdun zegoela esan zion.

100. Hasieran ez zuten Gizarte Segurantzarik (IUR-043/016)

Azkenengo haurdunaldietan medikuarengana joaten zen Frantziska, Sozietatean sartuta zeuden eta; baina lehenago ez zuten Gizarte Segurantzarik ere eduki. Orduan Don Juan de Alegria medikua eduki zuten eta partikular ordaintzen zuten.

101. Bakarrik zegoela eduki zuen umea (IUR-043/017)

Bigarren umea jaio zenean, bera bakarrik egon zen. Gizona arin joan zen bere amaren bila, baina etorri zirenerako umea jaiota zegoen. Umea bataiatu ere berak egin zuen inor etorri orduko.

102. Zazpi hilabeteko zegoela umea jaio (IUR-043/018)

Zazpi hilabeteko zegoenean, erripa batean pinu-orriekin laban egin eta jausi egin zen. Kolpe horrekin, umetokia apurtu ei zitzaion. Hurrengo egunetan beharreen ibili zen, teilak altxatzen astoekin. Kolpea hartu eta bosgarren egunean jaio zen umea. Umea fuertea zen, baina txikiegia bizi irauteko.

103. Etxe-bataioa (IUR-043/019)

Jaio eta jarraian bataiatu nahi zuten umea, konortea galtzen zuela ikusten zuten eta. Ahizpa joan zen parrokoarekin berba egitera eta hark ur bedeinkatua eman eta etxe-bataioa zelan egin azaldu zion.

104. Senarra ondo bizitzen ohitu zen soldadu egon zen denboran (IUR-044/002)

Senarrak zazpi urte egin zituen soldadu. Lehenbizi milizianoekin pare bat urtean. 25 urterekin artean soldadu zegoen. Bizitzako egunik txarrenak eta onenak bertan pasa omen zituen. Furrier lanean ibili zenez, bizimodu ona izaten ohitu zen, jateko nahikoa izaten zuelako eta dirua ateratzeko bideak ere egiten zituelako. Komandantearen inguruko kontuak. Irunera joaten ziren dantzaldietara. Handik itzulitakoan, ez zuen fabrikako lan loturik nahi eta artaldea jarri zuen. Gehienetan emazteak eta semeak zaintzen zizkioten ardiak.

105. Bi seme itsasoan ibiliak; petrolio-ontzian lanean (IUR-044/003)

Seme bikiak 15 urterekin itsasoan hasi ziren lanean; bata merkantzia-ontzietan eta bestea petrolio-ontzietan, munduko barku handienetan, motorra koipeztatzen. Bereinkua anaiena munduko bigarren itsasontzirik handiena omen zen; 400.000 tona eraman zitzakeen. Barkua nolakoa zen.

106. Batzarrak mendietan, azeri-ehiza antolatzeko (IUR-044/008)

Mendietan batzarrak egiten ziren hainbat lekutan. Inguruetako artzainen senideak ziren ehiztariak elkartzen ziren; txakur onak izaten zituzten, azeritarako. Azerien ehizaren inguruko kontuak. Azeriak ardiak ito egiten zituen, jan ez, eta aldi bakoitzean 10-12 ardi hil zitzakeen. Belatxikietan ere egiten ziren batzarrak.

107. Pamitxak nola egiten diren (IUR-044/009)

Pamitxak zer diren eta nola egiten diren. Beheko sutan egiten dira ondoen. Gogoan du behin Belatxikietan egin zen batzar batera eramateko egin zituela.

108. Batzarra Belatxikietan San Inazio egunean; azeri-ehiza (IUR-044/011)

Gogoan du Belatxikietan egin zen batzar bat. Pamitxak eraman zituen jateko. Hango baserrian bizi zen familiaren bizimodu eskasa. Goseak zeudela eta eramandako jatekoaren erdia eman zieten. Batzarrak mendi ezberdinetan egiten ziren, santuren baten eguna aintzat hartuta, azeri-ehiza antolatzeko. Ordukoan azeri bat harrapatu zutela gogoratzen du; Udalak ordaindu egiten zuen azeriko.

109. Belatxikietan ermita egiteko ideia nola sortu zitzairen (IUR-044/012)

San Inazio egunean egin zen batzarra Belatxikietan. Frantziskak meza egongo zela pentsatu zuen, baina Belatxikietan ez zegoen ermitarik. Orduan bururatu zitzairen ermita egiteko ideia. Jende askoren artean egin zuten: Jesus (Frantziskaren senarra), Maximo, Jose Rubio igeltsero arratiarra eta Xipri anaia, Emiliano medikua... Zornotzako jendeak ere asko lagundu zuen.

110. San Juanen bi irudi Belatxikietako ermitarako (IUR-044/014)

Jesusek, Frantziskaren senarrak, Belatxikietako ermitan San Juan jartzea proposatu zuen, artzainen zaindaria delako. Txukunesia k egin zuen irudi bat, igeltsuzkoa. Jesusek Otxandioko taillagin bati eskatu zion egurrezkoa egiteko. Igeltsuzkoa egoten zen, baina San Inazio egunerako egurrezkoa jartzen zuten, dotoreagoa zelako. Berak Belatxikietatik alde egin zuenean ostu egin zuten egurrezko irudia.

111. Lantegia utzi eta ardiak zaintzera (IUR-044/019)

Ezkondu aurretik hasi zen ardi-zain, senarrari laguntzen. Orduantxe utzi zuen fabrikako lana. Makinak behin baino gehiagotan harrapatu zizkion hatzak eta senideak hatzen bat galduko ote zuen beldur ziren.

112. Bizkargin ardi-zain (IUR-044/021)

Bera bakarrik ondo moldatzen zen, txakurraren laguntzaz, ardiak zaintzeko. Bizkargi azpiko baserri batean egoten ziren. Berak beti ondo egin izan die ardiei eta errespetatu egiten zuten. Txakurra ere beti ondoan izaten zuen. Bizkargira igotzen zen taxiarekin (Jose Olearekin) izaten zituen arazoak, artaldea bidetik ezin apartatuta ibiltzen zen eta.

113. Semea Morgan artzain; gazta onaren sekretuak (IUR-044/024)

Senarrak egiten zituen gaztak. Aurretik berak ere bai. Jesus Mari, seme zaharrena, Morgan egon zen garai batean ardiekin eta bertan egiten zituen gaztak. Ardia zenbat eta gutxiago nekatu, esne hobea ematen du. Gazta ona egiteko beste sekretu bat esnea batu berritan egitea da. Legarra tamainan behar du.

114. Gazta asko egin izan du (IUR-044/025)

Auzoko batek ardi batzuk erosi zituen eta Frantziskari eskatu zion gaztak egiteko. Frantziskak esne batu berriarekin egitea komeni zela esan zion. Esnea epel nola mantentzen zuen amak. Behin edo behin azukrea ere botako ziola uste du. Azukrea nola saltzen zen, koskor handietan. Gaztagintzaren inguruko kontuak. Goizean eta gauean egiten zituen gaztak. Bereak eta auzokoarenak banatu egiten zituen. Oso onak irten ziren auzokoaren gaztak. Behin igeltseroekin gertatutako pasadizoa.

115. Gaztagintza: esnearen tenperatura (IUR-045/002)

Senarrari etxeko gaztak nola egin azalpenak eman zizkioten Idiazabal denominaziokoek eta esnearen tenperatura 37 gradutik ez zela pasa behar esan zioten. Baina Frantziskak 40tik gorako tenperaturarekin egiten zituen gaztak eta oso onak irteten ziren. Senarrarekin eztabaidak izaten zituen

horren harira. Ehun litro esnerekin gazta ezberdinak egin zituenekoa. Esne hotzagoarekin gazta gogorrakoak.

116. Gaztagintza: legarra (IUR-045/003)

Esnea beroa badago, azkarrago hartzen du legarra eta legar gutxiago behar izaten du. Legarra ere ona behar izaten da. Ardiei ateratzen zitzaien. Gerora, Idiazabal denominazioa Frantziatik ekartzen hasi zen legarra, likidoan.

117. Legar onarekin gazta ona (IUR-045/005)

Plazan zegoen harategian legarra edukitzen zuten salgai eta senarrak handik erosten zuen. Legar onarekin gazta ona ateratzen da. Neurrian eman behar. Ardien eta esnearen trataera gaztan ikusten da.

118. Ardi-ilea, koltxoiak egiteko (IUR-045/006)

Ardi-gaztak saldu egiten zituzten eta harekin diru apur bat ateratzen zuten. Garai batean ardi-ilea saltzen zuten, koltxoiak egiteko. Zer prezio izaten zuten. Irabazitako diruarekin belardien alokairua ordaintzen zuten.

119. Neguan belardiak alokatu behar (IUR-045/007)

Neguan, ardiak herri ingurura jaitsitakoan, belardiak alokatu egin behar izaten zituzten, ardientzat jana izateko. Udaran mendian ibiltzen ziren. Sendatzeko ekartzen zituzten etxera eta gero berriz mendira eramaten. Batzuetan leize-zuloetan ere sartzen ziren.

120. Ardien gaixotasun txarrena errapekoa (IUR-045/008)

Ardien gaixotasunak. Batzuetan hernia sortuta egoten ziren, zuloren batean erorita egon ostean. Gaixotasunik txarrena errapekoa izaten zen. Lehenbailehen sendatu behar izaten zen, bestela ardiak errapea galtzen zuen.

121. Ardi beltzaren pasadizoa (IUR-045/009)

Behin ardi beltz bat izan zuten eta "Baltza" deitzen zioten. Ardi "noblea" omen zen, esanekoa, baina esne gutxikoa. Jesus Mari semeak asko estimatzen zuen, eta aitak jan egin behar zutela esan zionean, ez zuela topatzen esaten zion beti aitari. Ardiak etxean zeuden batean hil zuten azkenean. Ardi guztiak ondo ezagutzen zituzten.

122. Ehiztari batekin gertatutako pasadizoak (IUR-045/011)

Esnerik ez zuen ardi baten inguruko kontuak. Sarritan galtzen zitzaion ardia. Behin bila joan eta etxera zekarrela, ehiztari batek txakurra bidali zion apropos, eta ardiak hanka egin zion beldurtuta. Ehiztariak begitan hartuta zuen Frantziska, behin katamixar bat ehizatzea eragotzi ziolako.

123. Senarrak armadan bizitako pasadizoa (IUR-045/015)

Senarra armadan egon zeneko pasadizoa. Ez zekien gaztelaniaz eta erdi euskaraz erdi gaztelaniaz hitz egiten omen zien militarrei. Behin kargu handiko gizon bat joan omen zen Irunera eta mespretxuzko iruzkinen bat egin omen zuen Frantziskaren senarrari buruz. Senarra nola defendatu zen.

124. Senarra furrier moduan armadan (IUR-045/017)

Senarrak zazpi urte egin zituen soldadu. Furrier moduan ibili zen. Estraperloko kafea garesti zegoenez, goizean malta ematen zien soldaduei, kafearen ordez,

eta aurreztutako diruarekin haragia eta arraina erosten zuen. Buru argikoa zen negozioetarako eta agintzen ere ona. 500 lagunentzat jatordua antolatzen zuen.

125. Amamaren etxea (IUR-045/021)

Amamaren etxea nolakoa zen. Etxe aurrean trenbidea eta "erreka nausixe" (Ibaizabal). Luzea zen eta hiru bizitza zituen. Goian logelak eta ganbara txiki bat. Atzealdean ukuilua eta artzaintzako teilapeak zituen.

126. Gerra sasoian galdutako eskolak gerraostean berreskuratu (IUR-045/023)

Bost urterekin hasi zen eskolan. Gerra denboran ia bi urtez ez zuten eskolarik izan. Hori dela eta, Francok 15 urtera arte luzatu zien eskola. Zortea izan zuela dio, bera ia 16 urtera arte ibili zelako eskolan.

127. Amamaren inguruko oroitzapenak (IUR-045/025)

Lau urte zituela amamarenean egon zen eta orduko kontuak gogoan ditu oraindik. Amama astoa eta karroarekin Berriatura joaten omen zen barazkiak saltzera. Etxean ilea solte erabiltzen zuen, zapi bat buruan ipinita. Amamak esaten zizkion kontuak.

128. Simon eta Leon osabak lurretatik Matienarako errepidea egiten (IUR-045/027)

Bere bi osaba, Simon eta Leon, lurretatik Matienarako errepidea egiten ibili ziren. Gerra aurretik hasi ziren eta gerraostean amaitu zuten. Simon gerran hil zen. Gerra aurretik errepidea ebakitzen hasi zirenean, gizon bat lan eske joan omen zitzaien; bere buruaz beste egin omen zuen, lanik ez ziotelako agindu.

129. Bilera politikoetan Bittorrekin (IUR-047/002)

Gerediaga Elkarteko batzarren baten ezagutu zuen. Astola bueltan lorategi bat egitea erabaki zen eta Bittorri eman zioten ardura. 1975 inguruan bilera klandestinoetan ere aurkitzen zuen Bittor. Ordurako ilea zurituta zuen. Eredu zen eurentzat.

130. Egun osoa berriketan Bittorrekin txabola batean (IUR-047/003)

Euskeraren jatorria eta horrelako kontuekin jarduten zuen Bittorrek, Kaukasoko teoriak, glaziazioak... 1979 aldera egun osoa eman zuten hiru lagunek Bittorrekin txabola batean. Egun hartatik aurrera ikuspegia aldatu zitzaion. Louis Charpentier-en "El misterio vasco" irakurtzeko gomendatu zien. Ez dago ziur esaten direnak zientifikoak diren ala ez, baina bere leihoak han zabaldu ziren.

131. "Garatu" eta "Mendebalde" berbak (IUR-047/004)

Ohitura dago gaur egun, euskaltzainen artean eta, Koldo Mitxelenaren autoritatera jotzeko. "Mitxelenak dioenez...". Refranes y Sentencias eta errenteriarrarekin izandako polemika. 'Garatu' berba berak bultzatua da. 'Mendebalde' ere sustatu zuen, baina azkenaldera 'Sartalde' hobeto ikusten zuen.

132. Bittor zirikatzen (IUR-047/005)

Hartuemon estua eta beroa izan zuen berarekin. Haserretu ere egiten ziren. Xaxatu egiten zuen Anton Marik, eta tematia zen berean Bittor. "Ararat zer?", galdetzen zion, eta "urrinegi joan haz", erantzuten zion Bittorrek. Mar Negro "Osinbaltz" da bere ustez. Zirikatzen ibiltzen zitzaion.

133. Ez zuen onartu eskaini zioten itzultzaile lanpostua (IUR-047/006)

Gidaritzat hartzen zuten Gerediakoek, eta sarri jotzen zuten berarengana. Dirudienez, Eusko Jaurlaritzatik itzultzaile-buru izatea eskaini zioten. Bizitzeko ondo etorriko zitzaion, baina ez zuen onartu, horrekin bera erostea eta isiltzea nahi zutelaren zentsatzen zuelako.

134. Oromiñotik Athleticera (IUR-050/002)

Bere jaiotetxea berez Etxanoko lurretan dago (gaur egun Amorebieta-Etxano), baina Elizaz lurreta da. Beti izan zuten lurretarako joera eta Etxano non zegoen ere ez zekien. Bederatzi neba-arreba izan ziren. Oromiñoko eskolan ibili ostean, 12 urtegar Munitxaren eskolara joan zen merkataritza ikasten. Azterketa bat egin ostean. Ortiz de Zarate lantegiko bulegoan hasi zen beharrean. Bi urtez lantegian ibili ostean, berak dioen bezala futbolaren pozoiak eraginda, futbolearen aritzea erabaki zuen.

135. 18 urtegar Athleticegaz debutatu zuen (IUR-050/003)

Athletic bere bila joan zen 17 urte zituela. Lehenago Oviedora joan zen entrenatzera, baina bertara joan zitzaizkion bila. 18 urte zituela debutatu zuen talde nagusian. Garai hartan Iriondo, Benanzio, Zarra, Panizo eta Gainza ziren talde historiko hartako jokalaririk. Askotan lagundu zuten denek. 16 urte egin zituen bertan, sei txapelketa irabaziz.

136. Espanyolen lau urtez Di Stéfano gaz (IUR-050/004)

Athleticen 16 urtez jokatu ostean, Espanyol taldera joan zen. Lau urtez egon zen bertan, eta Alfredo Di Stéfano ere bertan egon zen, Real Madridetik bertara joan baitzen hiru urtetarako. Askotan jokatu zuen internacional moduan.

137. Pinudian jolastetik San Mamesen jokatzerara (IUR-050/005)

Oromiñoko errepidean eta pinudi artean hasi zen Carmelo futbolearen jolasten. Gogoan du, behin Real Madrident kontrako partidu baten aurretik pinudian ibili zela jokatzen, orduan ez baitziren partidu aurretik kontzentratzen. Durangora ere oinez etortzen ziren Cultural futbol-taldea ikusten. Culturalekoek ere bera fitxatzeko interesa izan zuten, baina bertako atezaina oso ona zela eta Amorebietara joan zen. Amorebietan sei hilabetez egon ostean joan zen Athleticera. Oinetako aproposik ere ez zuten izaten, hanka bakoitzean neurri desberdinetakoak ere jantzi izan ditu.

138. Espanyolen eta Baltimore Baysen (IUR-050/006)

18 urtegar Athleticen debutatu eta 16 urtez bertan egon ostean, Espanyol futbol-taldera joan zen lau urtetarako. Handik Estatu Batuetako Baltimore Bays taldera joan zen urtebeterako. Estatu Batuetan txapelak izan ziren, baina abioietako bidaiak oso gogorrak ziren eta etxera bueltatu zen.

139. Futbol-entrenatzaile bizimodua (IUR-050/007)

Estatu Batuetako Baltimore Bays taldean urtebetez egon ostean, etxera bueltatu eta entrenatzaile titulua atera zuen. Barakaldo, La leonesa, Vigoko Celta, Real Murcia eta La Real Balompédica Linense futbol-taldeak entrenatu zituen, besteak beste. 41 urte hasi zela entrenatzen eta oraindik sasoiko zegoen. Entrenatzaile lana txarra dela dio: galduz gero kaletik ere ezin zara ibili, emaitzak baino ez du balio eta galduz gero entrenatzaileari botatzen zaio errua.

140. Ameriketako egonaldia (IUR-050/008)

Estatu Batuetako Baltimore Bays taldera joan zen urtebeterako. Futbol amerikarra jokatzen zen zelai berbetan jokatzen zuten beraiek ere. Alde batetik bestera desberdintasun handia egoten zen eta hegazkinez mugitzen ziren batetik bestera, Carmelorentzat hori izan zen bertako txarrena. Behin -9 gradu izatetik 38 gradu izatera pasatu ziren partidu batetik bestera. Los Angeleseko hotel batean Robert Francis Kennedy, AEBko presidentea zenaren anaia, hil zutenean, bera hotel berean egon zen. Urtebetegarrean, kontratua luzatzeko aukera izan arren, etxera bueltatzea erabaki zuen emaztea eta semeak bertan baitzituen zain.

141. Entrenamendura bizikletaz eta trenez (IUR-050/010)

Carmelo Athleticen jokatzen hasi zenean, San Mamesen bertan, Indautxuko zelaian, edo Areetan entrenatzen ziren. Lehendabiziko urteetan bizikletan joaten zen Eubako tren-geltokira han Bilborako trenea hartzeko. Bilbon beste autobus bat hartzen zuten. Trenera berandu heldu arren, makinistak itxaron egiten zion San Mameserako sarrerak ematen baitzizkion Carmelok.

142. Athleticen denak ziren bizkaitarrak; durangarrekin txapeldun (IUR-050/011)

Carmelok Athleticetik jokatu zuenean, denak ziren bizkaitarrak. Athletic txapelduna izan den bakoitzean, beti egon dira Durangoko bi edo hiru jokalaririk.

143. Atezainarena posturik txarrena da (IUR-050/013)

Atezainarena posturik txarrena dela dio, akatsen bat eginez gero berari botatzen baitiote errua. Erantzukizun handiko postua da. Bere semeak ere, Andonik, postu hori aukeratu zuen eta baita bere bilobak ere.

144. Lezama, Cedrun eta Iribar: atezain historikoen erreleboa (IUR-050/014)

Lezama atezain historikoaren lekukoa hartu zuen Carmelo Cedrunek. Iragagorri zen garai hartako entrenatzailea. 37 urte zituela Jose Angel Iribar etorri zen lehen taldera eta Carmelo Espanyolera joan zen. Athleticetik ez zuen nahi izan Espanyolera joatea, baina berak aldatzeko gogoia zuen eta trukean Athleticetik diru mordoia ere jaso ei zuen.

145. Amak egindako artilezko eskularruekin jokatu zuen beti (IUR-050/015)

Bere amak egindako artilezko eskularruak erabili izan zituen beti atezain lanetan. Urtean sei edo zazpi eskularru gastatzen zituen. Gaur egungo eskularruak erabiliz gero, balio guztiak eskapatuko zitzaizkiola dio.

146. Atezaineri ez zieten garrantzirik ematen (IUR-050/016)

Lezama atezain historikoaren lekukoa hartu zuen Carmelo Cedrunek. Beretzan zegoenik eta onena zen, oso ona, baina ez zen erregularra eta hori zen zuen akats bakarra. Valladoliden jokaturako partida baten ostean kendu zuen entrenatzaileak eta orduan izan zuen Carmelok postua jartzeko aukera. Bere ustez, Athleticek beti izan ditu atezain onak, baina prentsak sekula ez zion horrenbeste garrantzirik ematen atezainari. Golak sartzen zituen jokalariai ematen zitzaion protagonismoa.

147. Ez zuen nahi izan semea atezaina izatea (IUR-050/018)

Carmelok ez zuen gura izan beran semea atezain izatea, baina bere emazteak asko babestu zuen. Seme biek hartu zuten erabakiagaz gustura dago. Alfredo Di Stéfano ere esan omen zion bere seme Andoniri ez izateko atezaina, posturik txarrena zelako eta galduz gero errua berari botako ziotela esanez.

148. Soldadutza Afrikan ez egitearren abizenaren lehen hizkia aldatu (IUR-050/020)

Athleticek abizena aldatu zion soldadutza Bilbon egin zezan. Telmo Zarra Afrika aldera joan behar izan zen eta liga galdu zuen. Carmelorekin arazo bera ez izateko Sedrun abizena Cedrun bihurtu zuten, "s" gaz hasitako abizena izanez gero Afrikara joan beharko litzatekeelako. Ordutik aurrera Cedrun da bere abizena Sedrun barik. Abizenaren jatorria Frantzian dago.

149. Aita jatorriz frantziarra, baina Euban hazitakoa (IUR-050/021)

Sedrun (gero Cedrun bihurtutakoa) abizenaren jatorria Frantzian dago. Bere aitona Bilbora etorri zen eta han jaio zen bere aita. Baina Eubako baserri batean hazi eta bizi izan zen bertako familia batekin. Carmeloren ama, ostera, Oromiñokoa zen. Frantzian abizen bakarra zutenez, Carmelok hiru abizen baino ez ditu, aitaren aldetik bakarra baitu.

150. Oromiñoko eskola (IUR-050/023)

Carmelo Oromiño auzoan jaio zen. Beraien etxea lurrez eta Udalez Etxano da (gaur egun Amorebieta-Etxano), baina Elizaz lurreta. Auzoko eskolara joan zen 12 urtera arte, lurretara joan zen arte eskola partikularra. Euskaraz egitea galarazita zuten eskolan eta sarritan zigortzen zien Valladolideko maisuak.

151. Aita gerran eta beraien etxean (IUR-050/024)

Aita gudari izan zuen Espainiako Gerra Zibilean, eskopeta eskuetan ibili zen Francoren tropen kontra. Oromiñon ere bi bandoetako jendea omen zegoen. Abioiak zetozenean, zubi azpian ezkututzen ziren.

152. Irabazitako Ligak eta Kopak (IUR-050/026)

19 urtegaraz jokatu zuen lehen finala Athleticekin. Bost txapelketa, Liga eta Kopa, irabazi zituen guztira Athleticekin. Bere taldea da txapelketa gehien irabazi zituena. Francoren eskutik jasotzen zuten Kopa eta hari ez zion graziarik egiten.

153. Athleticeko aurrelariak (IUR-050/028)

Artetxe, Markaida, Arieta, Uribe eta Gainza ziren bere taldeko aurrelariak. Baina aurrelari historikoak ere izan zituen sei urtez taldekide: Iriondo, Benanzio, Zarra, Panizo, eta Gainza, hain zuzen ere.

154. Futbolariak ez zuten elikadura zaintzen (IUR-050/031)

1953ko Bartzelonaren kontrako Kopako finala ostu egin zietela dio. Bana zihoazela Kubalak sartu zuen bigarrena. Ekipo ona zuten eta edozeini irabazteko kapaz, baina ez ziren zaintzen. Ez zieten jan eta edana kontrolatzen, pisu konkretu batetik ez pasatzea zen kontua. Zopa, legatza eta okel apur bat jaten zuten partidu aurretik. Carmelok beti hartzen zuen kafea jokatu aurretik, Garaik, ostera, kafea eta koñaka. Astelehen edo martitzenetan hiru-lau lagun Berrizera joaten ziren txuleta jatera. Gaur egungoak, asko zaintzen dira eta argal-argal daude eta azkarrago nekatzen direla dio.

155. Manchesterren kontra zelaia gorritz markatuta eta baloi gorria elurra zela-eta (IUR-050/032)

Bere garaian ere jokatzeko zituzten bi partidu asteko. Manchesterren kontra Championsen irabazitako partidua dakar gogora. 5-3 irabazi zuten San Mames elurraz zurituta zegoela. Baloi gorriarekin eta zelaiko marrak gorritz pintatuta jokatu zuten. Manchesterrek 10 jokalarik internazional zituen eta Ingalaterrako txapelduna zen. Ingalaterrako bueltako partiduan 2-0 galdu zuten.

156. Manchesterrek zelaia aldatu eta ez zuten Old Trafforden jokatu (IUR-050/033)

Manchesterren kontra Championsen jokatuak dakartza gogora: 5-3 irabazi zuten San Mames eta 2-0 galdu Ingalaterran. Old Trafford zelaian jokatu beharrean, kakaztuta eta txarto zegoen Manchester City zelaian jokatu zuten. Beraien nekatuta joan ziren bertan eta ezin izan zuten egin ezer.

157. Athleticen giro ona izan dute beti (IUR-050/034)

Athleticen beti egon da giro ona. San Mames zaharrean ere sekula ez zen lekurik egoten. Baina lehenagoko zalean zintzoagoak zirela dio; orain ez baldin badute irabazten, denak haserretzen direla dio. Jokalariak anaiak bezala zirela dio, dena egiten zuten euskaraz.

158. Futbolariak irabazitakoan jasotako gainsaria (IUR-050/035)

1958ko Kopa, Rial, Puskas, Gento eta Di Stéfano aurreko lerro mundiala dakar gogora. Athleticen ahala ere irabazi egin zion. Di Stéfano irabaziz gero, ze gainsari zuten galdetu zion Carmelori. Athleticen 50.000 pezetakoa zuten eta beraien, Real Madrilen, 380.000 pezetakoa. Jokalari arrunten soldadak ez ziren neurrigabekoak, Di Stéfano izango zen orduan gehien irabazten zuena. Lagun minak ziren Di Stéfano eta bera.

159. Athleticek izan zituen entrenatzaile garrantzitsuenak (IUR-050/036)

Entrenatzailea asko izan ditu Carmelu Cedrunek, baina guztien artean Ferdinand Daucik nabarmentzen du, Liga eta Kopa irabazi baitzituzten. Baltasar Albeniz nafarrarekin 1958ko Kopako finala irabazi zuten Real Madrilen auka. Entrenatzaile bakoitza lauzpabost urtez egoten zen. "Los once andeanos" deitzen zien, denak baitziren baserritarrak.

160. Lehenagoko futbol-zelaiak (IUR-050/038)

San Mamesen zelaia normalean ureztatu egiten zuten. Beste askotako zelaiak, ostera, siku-siku egoten ziren eta belarra hazita. Belar naturala izaten zuten zelai guztiek. Gaur egungo jokalaria ere bere ustez ez dira lehengoak bezala sakrifikatzen, lehen askozaz gehiago ahalegintzen ziren.

161. Di Stéfanogaz Espanyolen (IUR-050/042)

Espanyol futbol-taldean zegoela bertan jaio zen bere bigarren semea. Di Stéfano ere bertan zegoen orduan eta egunero egoten ziren batera. Futbol-zelaian txarrena izan zitekeela dio, baina oso pertsona ona eta jatorra zela. 40 urte zituen orduan Di Stefanok eta arineketan denei irabazten zien, apustuak egiten zituzten.

162. Penaltiak geratzen aparta, historia egindakoa (IUR-050/043)

Penaltiak gelditzen bere garaiko onena zen Cedrun. Kubalak 200 penaltitik gora zeramatzan gola sartuz, 1958ko Kopako finalean 93. minutuan penaltia gelditu zion Carmelok. Lehen ez zuten aukerarik izaten aurkarien partiduak telebistaz ikusteko eta hauek jokaldiak aztertzeko. Hori dela-eta, hoteletako zerbitzariei-eta galdetzen zien ea penaltiak nork eta zelan botatzen zituen. Trukean partidurako sarrera ematen zien berak. Wembley zelaian gelditutako lehen penaltia ere berea izan zen.

163. Oviedon zegoela Athletic bere bila (IUR-050/044)

17 urte gaz Oviedoko futbol-taldekoak joan ziren bere bila. Bere amak ea Oviedo non zegoen galdetzen zuen. Koinatu bategaz eta Amorebietako zuzendaritza-taldeko bategaz joan zen bertara. Astebetera, akordioa batera heltzen zeudela, Athleticekoak joan zitzaizkion bere bila eta handik Bilbora joan zen.

164. Lesionatu eta laster berriro jokatzen (IUR-050/046)

Manchester Uniteden kontra jokatutako partida batean lesionatu zen Carmelo. Aurrelari pisutsu baten kontra jo eta belauna apurtu zion. Baina laster sendatu zen, 21 egunetan berriro jokatzeko egon zen. Oromiñoko erreka hotzak ondo egin omen zion, bertan sendatzen omen zituen kolpeak. Mujika zen taldeko orduko medikua.

165. Autobusez ospatzen zituzten irabazitako lehiaketak (IUR-050/050)

Gabarra 80. hamarkada hasi ziren ateratzen, Clementeren garaian. Beraien garaian kamioi batean zeharkatzen zuten Bilbo eta beste hainbat herri.

166. Athleticeko zuzendaritzako asko abioi-istripuz hil zirenekoa (IUR-050/051)

Espainiako edozein tokira joateko autobusez joaten ziren. Behin Jaenera joateko autobusa hondatu eta hegazkinez joatekoak izan ziren. Baina azkenean, autobusez joan ziren eta zuzendaritza-taldea joan zen hegazkinez. Istripua izan eta zuzendaritzako asko hil ziren.

167. Hitanoa senideekin eta aspaldiko lagunekin (IUR-052/003)

Neba-arrebekin eta lagunekin erabiltzen du hitanoa. Semeari ere egiten dio baina alabari ez. Uste du euskaldun berriek ez dutela hitanoa ikasi izan.

168. Euskararen egoera soziala (IUR-052/004)

Euskararen egoera sozialari buruzko iritzia ematen du. Lan handia egin duela uste du, baina ez nahikoa.

169. Helduen alfabetatzearen garrantzia (IUR-052/006)

Helduen alfabetatzeari buruzko iritzia ematen du. Erabaki politikoak behar direla uste du. Alfabetatzea errotzen ez bada, ez dela jendea euskaldunduko uste du. Euskaldun berriekiko jarrera.

170. Alfabetatzea zabaltzeko, erabaki politikoaren beharra (IUR-052/007)

Euskaraz alfabetatzeko kontzientzia falta ikusten du euskaldun zaharren inguruan. Erabaki politikoaren beharra ikusten du.

171. Bizkaiera eta batua elkar hartuta (IUR-052/009)

Berak ikastolan dituen ikasleei bizkaiera eta batua erakusten die. Euskara indartu ahala, ez dela euskalkien artean talkarik izango uste du. Kultura batuarekin indartu dela dio.

172. Basauriko ikastolaren hasiera (IUR-052/011)

Basauriko ikastola zabaldu zuen. Ikastolako orduz gain, euskara eskolak antolatu zituzten.

173. Euskararen etorkizuna, balorearen eta baliabideen gain (IUR-052/013)

Euskararen etorkizuna beheranzkoa izango dela dio, ez badira baliabideak eta erabaki ahalmena gehitzen. Gizartearen goi-mailak euskarari ematen dion araberako balorea izango dute besteek ere, Kristinaren ustez.

174. Bere ibilbidea bertsoaritzan (IUR-052/015)

Txikitatik musika gustatu izan zaio. Euskarari loturiko txapelketa baten harira izan zuen bertsoaritzarekin lehen kontaktua. Auzoetan bertsoariak entzutea atsegin zuen. Durangoko bertso-eskolan aritu zen. Lehenengo plaza Bilboko Plaza Berrian, 1982an.

175. Erronka jotzearen, bertsoaren (IUR-052/016)

Arrisku zalea izan da txikitatik. Auzoko mutilekin futbolearen egiten zuen. Bertsoaritzaren emakumeentzat berdina izan zitekeela uste zuenez, hasi zen. Bere

ingurukoek onartu izan dute, baina izan ditu polemikak ere. Bertsotan emakume bakarra.

176. Bertsoa analitikoki puntuatzen (IUR-052/017)

Txapelketei buruzko iritzia ematen du. Bertsoa analitikoki puntuatu daitekeela uste du. Bertsolaritza mundu kultuan sartu dela dio.

177. Bertsolari txapelketetako puntuazio irizpideak (IUR-052/018)

Gorputzarekin komunikatzea txapelketan baloratu behar den edo ez, eztabaidagai dago. Gaiaren tratamendua puntuatzea arriskutsua iruditzen zaio.

178. Aldaketa gizartean, aldaketa bertsolaritzan (IUR-052/019)

Bertsolaritzan gazteek umorea eta ametsak galdu dituztela uste du, gizartea aldatu delako. Sasoi batean bertsotan sartu zen jendea konbentzimendu intelektualarekin hasi zirela uste du.

179. Bertsotarako gaiak eta jaialdi motak (IUR-052/020)

Bertsotarako gaiak jartzea ez dela erraza uste du. Hausnarketa egiten du gaia, ikuskizuna eta besteei gustua eman beharraz. Bertsolaritza artea izanik, denboraren estutasunarekin emaitza onik lortzea zaila dela uste du.

180. Emakume gutxi bertsotan (IUR-052/021)

Ez dira ausartu izan emakume izategatik berarekin sartzeko, ez bada oso gertukoengandik.

181. Bertsolari txapelketako gazi-gozaak (IUR-052/022)

Bertsolari txapelketan izandako esperientziaren berri ematen du.

182. Bertsolaritzaren etorkizuna (IUR-052/023)

Bertsolaritzaren etorkizunaz iritzia ematen du.

183. Otzerinjauregitarren familiaz (IUR-058/001)

184. Nikasio Otzerinjauregi Iturriaga (IUR-058/002)

185. Nikasio Otzerinjauregi kartzelan eta trabajadoreetan (IUR-058/003)

186. Nikasio Otzerinjauregi: Trabajadoreekin Erronkarira (IUR-058/004)

187. Nikasio Otzerinjauregi: Hodei Zenikaonandia bilobaren oharrak (IUR-058/005)

- 188. Nikasio Otzerinjauregi: "zapaterue" Arriandira (IUR-058/006)**
- 189. Juan Otzerinjauregi Iturriagari buruz (IUR-058/007)**
- 190. Dimoztar bat UHPn? (IUR-058/008)**
- 191. Juan Otzerinjauregi Iturriagari aurpegia jarri guran (IUR-058/009)**
- 192. Jendea etxean gordeta (IUR-059/001)**
- 193. Martxoaren 31ko bonbardaketa (IUR-059/002)**
- 194. Baserritik urten egin behar (IUR-059/003)**
- 195. Amatzatik (Iurreta) Galdamesera (IUR-059/004)**
- 196. Etxera itzuli eta Aita Juan trabajadoreetan (IUR-059/005)**
- 197. Aita Juan Bikandi (IUR-059/006)**
- 198. Celestino Zarrabeitia "Txarakas" ihesi (IUR-059/007)**
- 199. Guardia Zibilak etxean hartu behar (IUR-059/008)**
- 200. Eskolan egurra (IUR-059/009)**
- 201. Gerraostean ezpatadantzari (IUR-059/010)**
- 202. Agirreren mitina eta Enbeitaren bertsoa (IUR-060/001)**
- 203. Berrogei urterekin itzuli (IUR-060/002)**
- 204. Kinto altxatu Elgetara eta gero Mirandara Preso (IUR-060/003)**
- 205. Trabajadoreetan Erronkarin (IUR-060/004)**
- 206. Trabajadoreetatik Larrinagara eta gero Frantziara ihes (IUR-060/005)**
- 207. Aita "Bizkaitarra" (IUR-061/001)**

- 208. Errepublika garaian eskolan (IUR-061/002)**
- 209. Otxandioko bonbardaketaz (IUR-061/003)**
- 210. Intendentziako mutilak lagun etxean (IUR-061/004)**
- 211. Familiak Durangoko Batzokiaren ardura (IUR-061/005)**
- 212. Martxoaren 31ko bonbardaketa (IUR-061/006)**
- 213. Bilbora eta handik Berangara (Kantabria)
(IUR-061/007)**
- 214. Frantzian eta Frantziatik bueltan (IUR-061/008)**
- 215. "Matxinenera" itzulera. (IUR-061/009)**
- 216. Aitaren lagunik onena fusilatu (IUR-061/010)**
- 217. Zineman salatu zutenekoa (IUR-061/011)**
- 218. Martxoaren 31ko bonbardaketa Goiuritik (Pantxi)
(IUR-062/001)**
- 219. Martxoaren 31ko bonbardaketa (Rosario)
(IUR-062/002)**
- 220. Ebakuazioa: Rosario Karrantzara (IUR-062/003)**
- 221. Rosarioren aita Karrantzatik eroan (IUR-062/004)**
- 222. Aita Karrantzatik zelan eroan zuten (2) (IUR-062/005)**
- 223. Aita dantzari famatua lurretan (IUR-062/006)**
- 224. Pantxi: Durango deseskonbratzen (IUR-062/007)**
- 225. Aurkezpena: Kristina eta bere familia (IUR-063/001)**
- 226. Aitita-amamak: "opinio bako jendea" (IUR-063/002)**
- 227. Auzokoek etxea berriz erosi behar (IUR-063/003)**

228. Norbere etxean beste inor: izeko Edurneri gertatua (IUR-063/004)

229. Amama karlistak miliziano zauritua gorde etxean (IUR-063/005)

230. Aitak gaztetxotan milizianoei lagundu (IUR-063/006)

231. Etxandietan gerrako ospitalea eta hildakoak lurretara (IUR-063/007)

232. Karlisten batzarrak nor jipoitu edo salatu erabakitzeko (IUR-063/008)

233. Aita Durangoko bonbardaketaren hondarrak garbitzen (IUR-063/009)

234. Izeko Edurne "Nieves" bihurtu gura izan zutenekoa (IUR-063/010)

235. Oromiñoko eskolan gazteleraz baina euskararen kontrakotasunik ez (IUR-063/011)

236. Euskaldun kontzientzia Juanito Gallastegiren bitartez (IUR-063/012)

237. Arrianditarrak erderaz (IUR-063/013)

238. Hamabost urterekin euskaldun kontzientea (IUR-063/014)

239. Zeruko Argian kolaboratzen, Oizpetik Anbotora irratsaioa... (IUR-063/015)

240. Auzokoak euskalduntzen gaztetatik (IUR-063/016)

241. Julen Kaltzada eta Herri Gaztedi (IUR-063/017)

242. Herri Gaztedi JARCetik kanpora (IUR-063/018)

243. Alfabetatze munduaren sorrera (IUR-063/019)

244. Ikastolen sorrera (IUR-063/020)

- 245. Mezak euskaraz lortzeko ekintza Andra Marian (IUR-063/021)**
- 246. Euskararen aldeko presio ekintzak (IUR-063/022)**
- 247. Auzolana: ikastolen sorrera, Gerediagarena... (IUR-063/023)**
- 248. Ikastoletan irakasle (IUR-063/024)**
- 249. Otxandioko ikastola salaketa bategatik utzi behar (IUR-063/025)**
- 250. Basauriko Arizko ikastola eta Bandasko greba (IUR-063/026)**
- 251. Kartzelara bisitak eta Arizko ikastola utzi beharra (IUR-063/027)**
- 252. Eskola publikoan irakasle (IUR-063/028)**
- 253. Ikastola txikiak behin eta berriz itxi (IUR-063/029)**
- 254. Iurretako ikastolak eta eskolak bat egin (IUR-063/030)**
- 255. Bertsolaritzarekin lehenengo harremanak eta Serafin Oromiño osaba soinujolea (IUR-063/031)**
- 256. Durangaldeko lehenego bertso eskola eta plazak (IUR-063/032)**
- 257. Bestelako bertso mundua eta bertsolari emakumea (IUR-063/033)**
- 258. Hausnarketa (IUR-063/034)**
- 259. Ugazabari eman behar botoa (IUR-064/001)**
- 260. Oromiñoako bi heriotza zigorragaz Santoñan (IUR-064/002)**
- 261. Anaiaren pistola eta Hotel Alzaakoen salaketa (IUR-064/003)**

262. Martxoaren 31ko bonbardaketa Oromiñotik (IUR-064/004)

263. Erreketeak Artatzan (Oromiño) (IUR-064/005)

264. Lemoatxera gurdiagaz (IUR-064/006)

265. Baserritik urten gura ez (IUR-064/007)

266. Durango deseskonbratzera derrigortu (IUR-064/008)

267. Pedro Totorikaguenaren heriotzaz (IUR-064/009)

268. Julian Totorikaguena frankistek kintetatik eroan (IUR-064/010)

269. Gerraosteko Oromiño: euskara, eskola... (IUR-064/011)

270. Pedro Totorikaguenaren faltari buruz (IUR-064/012)

271. 1968an erizain plaza lortu zuen (IUR-066/002)

1968an, Eibarko erizain ("praktikante") plaza lortu zuen. Anbulatorioko funtzioak. Goizero etxetara joaten zen odola ateratzera pazienteei.

272. Baserritarrek lan gutxi ematen zuten (IUR-066/003)

Erizain bezala, baserri batzuetara joan izan da injekzioak jartzera, baina ez zen ohikoena. Baserritarrek oso lan gutxi ematen zuten eta anbulatoriora joaten ziren zuzenean.

273. Penizilinaren erabileraren hasiera (IUR-066/004)

Injekzioak jartzen hasi zenean, penizilina erabiltzen hasi zen. Gaur egun antibiotikoak ahoz ematen dira eta erosoagoak dira, nahiz eta odolera beranduago iristen diren.

274. Tresneriaren esterilizazioa irakite bitartez (IUR-066/005)

Erabiltzen zuen tresneriaren esterilizazioa irakite bitartez egiten zuen. Tratamendu luzeko pazienteetan, lapiko txiki bat etxean bertan uzten zuten xiringarekin. Kristalezkoak ziren xiringak. Anbulatorioan, tresneria irakiten egun osoz izaten zuten.

275. Garai bateko erizaintzako tresneria eta haien erabilera (IUR-066/006)

Erizain bezala erabiltzen zituen tresnak. Igeltsua kentzeko tresna. Gasa motak eta erabilerak. Pintzak.

276. Erizain eta praktikante lanak (IUR-066/008)

Batzuetan, norbait operatu ondoren, etxean injekzioak beraiek jartzeko esaten zien medikuak eta erizainek erakutsi egiten zieten. Eibarko anbulatorioan garai batean zazpi erizain zeuden etxez-etxe pazienteak ikusten. Populazio handia zuen Eibarrek.

277. Eibarko anbulatorioan espezialitate guztiak zeuden (IUR-066/009)

Eibarko anbulatorioan, medikuntzako espezialitate guztiak zeuden. Eskualdetik ere pazienteak hartze zituzten otorrinoek, okulistek, zirujauak... Matilde praktikantea zen eta etxez-etxe eta anbulatorioko botikinean lan egiten zuen zauriak sendatzen, injekzioak jartzen, igeltsuak kentzen...

278. Udaletxe azpian "Cuarto de Socorro" (IUR-066/010)

Anbulatorioaz gain, 1970ean, udaletxe azpian "Cuarto de Socorro" delakoa zegoen. Larrialdien antzeko zentro bat zen.

279. Lantegi handiek medikuak, erizainak edo praktikante propioak zituzten (IUR-066/011)

Lantegi handiek, praktikanteak eta erizainak ere zituzten. ALFA.

280. Udal-praktikante plaza nola lortu zuen (IUR-066/012)

Eibarko anbulatoriora lanera joan zenean, Osakidetza sortuta zegoen. Matildek Ermuko praktikante plaza ateratzeko azterketa Madrilen egin zuen. Ermuan emagin bezala lanean hasi zenean, gizarte segurantzarik ez zuen jendea zegoen.

281. Premiadun pretsoei laguntzen (IUR-066/014)

Ministeritzako plaza lortu zuenean, bere betebeharretako bat, behartsuei edo premiadun pertsonei artatzea zen.

282. Eskoletan azterketa medikoak egiten (IUR-066/015)

Eibarren praktikante plaza hartu zuenean, eskoletan haurrei egiten zitzairen azterketa medikoen arduraduna izan zen. Ikusmena eta entzumena nola neurtzen zuen.

283. Zorrien arazoa haurren artean (IUR-066/016)

Eskoletan zorriak. Haurrak etxera bidaltzen zituzten zortzi egunez, baina eskolara bueltatzean berriz harrapatzen zituzten. Haur batzuk errazago harrapatzen zituzten.

284. Anbulatorioko lantegiko langileen arteko erlazioa (IUR-066/017)

Eibarko Ansorregi pediatriak inkubagailuak zituen. Familiako medikuekin izaten zuten harreman gehiago espezializatutakoekin baino.

285. Garaiko erizainek modu mekanikoan lan egiten zuten (IUR-066/018)

Gaur egun erizainek formakuntza osoagoa dute. Garaiko erizainek modu mekanikoago batean lan egiten zuten.

286. Medikuari berorika (IUR-066/021)

Mediku batzuek haiei berorika zuzentzeko eskatzen zuten, nahiz eta gero haiek erizainei zuka hitz egin. "Don" tratamendua ematen zitzairen.

287. Drogak 80-90. hamarkadan I (IUR-066/022)

Eibarren drogekin arazo larria egon zen. Etxe batera joaten zenean, hasieratik jakiten zuen familia horretan norbaitek arazo hori bazuen. Amek eramaten zuten karga guztia. Emakume batzuek elkarte bat sortu zuten drogen arazoei aurre egiteko. Ama askok arazoak izaten zituzten haien seme drogazaleekin.

288. Drogak 80-90. hamarkadan II (IUR-066/023)

Anbulatorioko tresneria guztiarekin kontu handia izan behar zuten. Drogan sartuta zeudenak askotan oldarkorrak eta bortitzak izaten ziren tratuan. Gazte asko hil ziren. GIB birusa.

289. Drogak 80-90. hamarkadan III: GIB birusa (IUR-066/024)

Gazte asko hil ziren baina batzuk tratamenduarekin aurrera egin dute.

290. Drogak 80-90. hamarkadan IV: emakumeen ardura etxean (IUR-066/025)

Alabaren institutuko ikasturteko asko hil egin ziren. Emakume asko euren semeen drogazaletasunari nola aurre egin galdetzen zuten. Gizonezkoak ez ziren inplikatzeko. Emakume ezberdinek hartutako erabakiak.

291. Drogak 80-90. hamarkadan V: lapurretak dirua lortzeko (IUR-066/026)

Gazteak hasieran etxean lortzen zuten diruarekin erosten zuten heroina. Gerora, abstinentsiak jota, lapurreta txikiak egiten zituzten, baina ez ziren oldarkorrak izaten. Eibarren arazoa oso handia izan zen.

292. Drogak 80-90. hamarkadan VI: nork sartu zuen heroina (IUR-066/027)

Heroina, Euskal Herrian gobernuak sartu zuen, euskal gazteria apaltzeko eta herri-mugimenduetatik urruntzeko. Herrian, emakumeen artean ere komentatzen zen eta ez zuten justiziarengan konfiantza handiegirik izaten.

293. Pagei kaleko amaetxea (IUR-066/029)

Pagei kaleko amaetxea baino lehen, bazegoen beste bat Dos de Mayo kalean. Pagei kaleko amaetxea pribatua zen, baina Osakidetzarekin lotura zuen. Sagrario emagina. Klinikak eskaintzen zuena: ginekologoak, emaginak, erizainak...

294. Etxean edo ospitalean erditu? (IUR-066/030)

Gaur egun, erosoagoa da ospitalean erditzea, arazorik balego bertan daudelako material guztiak. Hala ere, emakume batzuentzat lasaiagoa da etxean erditzea.

295. Emagin eta ginekologoaren arteko ezberdintasuna (IUR-066/031)

Emagin eta ginekologoaren arteko ezberdintasunak. Emaginak ezin du esku hartu haurra buelta emanda badator. Garai batean, ginekologoak haurra ondo nola jartzen zuen kontatzen du.

296. Ama ezkongabeak estigmatizatuak zeuden (IUR-066/033)

Ama ezkongabeak oso estigmatizatuak zeuden. Batzuek herritik kanpo erditzen zuten. Gaur egungo egoera hoherantz aldatu da.

297. Eibarko Planning-a, emakumeentzat aurrerapen handia (IUR-066/034)

Eibarko Planning-a aurrerapen handia izan zen emakume eibartarrentzat. Osakidetzak ematen ez zuen zerbitzu bat ematen zuen eta kontrari zegoen jendea ere agertu zen. Sexualitateaz hitz egiten zen eta oso beharrezkoa zen garai hartan.

298. Amaren edo aitaren antza? (IUR-066/035)

Sasoikako langile batez haurdun geratu zen emakume baten erditzeaz eta hauen haurraz, kontakizun polita egiten du.

299. Emagin bezala izandako kasu larrienak (IUR-066/036)

Emagin bezala izan duen erditze zailena. Ama odolusteko arriskua.

300. Pertsona baten heriotza begietan ikusten zaio (IUR-066/037)

Ermuan lanean zegoenean, pertsona bat ahotik odola botatzen hasi eta hil egin zen. Norbait hiltzeko zorian dagoenean, begietan zerbait ikusten dio.

301. Abortua eragin nahian (IUR-066/038)

Lau seme-alaben ama batek, abortu bat eskatu zion baina Matildek ezin izan zion lagundu, ez zekiela nola egin. Haurra ondo jaio zen eta amak orduan konfesatu zion, abortua eragiteko gauzak egin zituela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2024-04-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com